...eta Kitto!

2016-VI-17 978 zkia.



# SANJUANAK

# Erre, erre, jaiak dira-eta!

EUKI

LAN, LEGE ETA ZERGA AHOLKULARITZA

EKINTZAILE: Zure enpresa berriaren Negozio Plana prestatuko dizugu DOAN

Zure negozioa indartzeko ideiak

www.euki.com Tfnoa. 943 20 42 91



# CRF AMOSTEGI

## ERREHABILITAZIO FUNTZIONALAREN ZENTRUA




* ERREHABILITAZIOA
  - Osakidetza - Aseguruak
* FISIOTERAPIA PERTSONALIZATUA
  Esku terapia - Osteopatia / INDIBAterapia (Radiofrekuentzia) /
  Txizaren inkontinentzia (emakumeak eta gizonak)
  E.P.I.: Azal-elektrolisi intratisularra / K-LASERterapia / Puntzio lehorra
* HAURDUNEN OSASUNARENTZAT ETA ERDIONDORAKO DENETARIK
  - Amatasunerako prestakuntza:
    Haptonomia eta Metodo tradizionala (taldeka/banakakoa)
  - Episiotomiaren prebentzioa, Txiza-inkontinentzia, Prolapsoak: EPI-NO + Masajea
  - Lunbalgien, Sakroilialgien, Coxigodinien... esku-tratamendua
  - Pelvis-zoruaren balorazioa erdiondoan
  - Tratamenduak txizaren inkontinentzia eta/edo inkontinentzia fekalerako, zesareen orbainentzat, episiotomiak, perineoko mina, etb.
  - Antzutasun funtzionalaren tratamendua
* MEDIKUNTZA ESTETIKOA
  - Zelulitisaren tratamendua kabitazio ultrasonikoaren eta elektrolipolisisaren bitartez
  - Eskuzko drainatze linfatikoa (DLM) eta/edo presoterapia
  - Elektrodrainatze linfatikoa eta baskularra (zainetako itzuleraren areagotzea)

Muzategi, 2 behea Tfnoa/Fax. 943 20 34 46 info@crf-amostegui.com www.crf-amostegui.com



Beittu Zentro Optikua

R.P.S. 253/14

J. Etxeberria, 13
943 700 230

Ondo pasau Sanjuanetan!




Audifonoak

Probatu doan
Konpromiso barik

...eta kitto! Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:** Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:** erredakzioa@etakitto.eus komunikabideak@etakitto.eus publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:** elkartea@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Uxue Igarza eta Haizea Arizaga.

**ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA**: J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:** Leire Iturbe

**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.150 ale.

**INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.
**ISSN:** 1132 - 1679

*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

2015 Bikain

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# eskutitzak

## Urkin jaiak eta kirola uztartuz

Urkiko jaiak igaro berritan, eskerrak eman nahi dizkizuegu gure auzora etorri zareten guztioi, eta ekintza ezberdinetan parte hartu duzuenei. Aurten ere pilota partiduetan eta Txiki-krosean umeek kirola egiteko aukera izan dute; nagusiak, berriz, VIII. Galdaramiño igoeran saltoka ibili dira.

Antolaketa lanetan lagundu diguzuen guztiei mila esker: Eibarko Udala (Udaltzaingoa), Eibarko Kirol Patronatoa, Eibarko Klub Deportiboa (mendia eta atletismo sailak), DYA, Nemak, Bar Nuevo, Salaberria bitxidenda, Kaiku, Eroski, Coca-Cola, Kirolprobak, SER, Arrate Irratia, Berria eta ...eta kitto! astekaria.

Azpimarratu nahiko genuke urteak joan urteak etorri bolondres guztiek egiten duten lana, eurak gabe ez baitzen posible izango kirol ekintza horiek antolatzea. Ondo izan eta hurrengo urtera arte!

Galdaramiño Igoera ¬ Urkiko Jai Batzordea

*ERREDAKZIOAREN OHARRA:*
*SANJUANAK direla-eta, datorren astean ez dugu alerik kaleratuko. Sanjuanetako argazkiak bakarrik jasotzen dituen BIXAMONA kalean izango da hilaren 28an (martitzena). Ale berezi hori prestatzeko argazkiak egiten ibiliko garenez oraindik, ohiko hauteskunde eguneko alerik ez dugu kaleratuko oraingoan. Eta hurrengo alea uztailaren 8an izango duzue buzoietan. Uztailean beste bi kaleratuko ditugu, 15ean eta 22an.*

# Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**LANPAR.-** Euri lanbroa. *"Egitten dihardduan lanparrakin zihero busti naiz etxera orduko".*
**LANTZIAN.-** Bakoitzean. *"Lantzian lau pelota etortzen jatazen".*
**LANTZIAN-LANTZIAN.-** Askotan, sarritan. *"Lantzian-lantzian etortzen jako ukandoko miña".*
**LANTZIAN BEHIN.-** Noizean behin. *"Lantzian behin gustatzen jaku Arratera oiñez juatia".*

# astean esanak

"Egia baita gizon askok botere praktikak gauzatzen dituztela sexualitatearen bidez, eta euren maskulinitate hegemonikoa berresten dutela. Baina egia da, era berean, prostituzioa kontsumitzen dutene irudia estereotipatuta dagoela. Gizon batzuek, esaterako, uzki sexua galdegiten dute -horregatik dute lan gehiago zakildun transexual emakumeek-, eta, hala, heteroaraua apurtzen dute: haientzat ere ihes egiteko modua izan daiteke prostituzioa. Sexualitatea oso eraikuntza mugatzailea da denontzat"

(AURORA ITURRIOZ, TRANSFEMINISTA)

"Debekuarekin tematzeak enpatia falta adierazten du, baita prostituten egoeraren gaineko ezjakintasuna ere. Erregulatzeak ekarriko luke erakundea normalizatzea; baina, aldi berean, pentsatzea garrantzirik eta ondoriorik ez daukala. Prostituzioa erregulatu duten legeek prostitutei kalte egin diete askotan. Sektore txiki bati egin diote mesede, baina gehienei ez, egoera irregularrean izanik ezin zaielako legea aplikatu. Horrek alegalitatetik ilegalitatera eraman ditu, eta egoera ahulago batera, ezkutuan ibiltzera, azkarrago negoziatzera eta merkeago jardutera"

(BEATRIZ GIMENO, PENTSATZAILE FEMINISTA)

"Bost prostituzio sistema daude Europan: 1) Prohibizionista: andreen salerosketa gehien duten herriak dira Irlanda, Kroazia eta Lituania; 2) Abolizionista: isunak egon daitezke eta prostituzioa bere horretan ez dago debekatuta Erresuma Batuan, Belgikan eta Espainian; 3) Abolizionista *berria*: prostitutak biktimak dira eta bezeroak zigortzen dituzte Frantzian, Suedian eta Italian; 4) Arau-emailea / Erregulazioa: prostitutak erregistratuta daude eta zergak ordaintzen Austrian eta Grezian; 5) Legalizatzailea: lana da, gizarte segurantza dute eta eskubideak dituzte Herbehereetan eta Alemanian"

(PROSTITUZIOA EUROPAN)

## Barixakua 17

19:30 **DANTZARI EGUNA.** Antolatzaillia: Klub Deportibua - Kezka Dantza Taldia. Untzagan.

20:00 **BALLET EIBARRÉS** taldiaren dantza emanaldixa. 3 euro. Coliseoan.

22:00 **BOXEO GABA**. Antolatzaillia: Gasteiz Sport. Astelena frontoian.



Dantzari Eguna



Simulaziño jokuak

## Zapatua 18

11:00/14:00 eta 16:00/20:00
**SIMULAZIÑO JOKU**en taillarrak (modelismua, magia, eszenografixia eta mahai-jokuak), Odisea alkartiaren eskutik.Untzagan.

11:00 San Juan **PELOTA** txapelketia. Pelota eskolakuen partiduak, seniorrak 4 1/2-xan eta biñaka. Antolatzaillia: Eibarko Klub Deportibua. Astelena frontoian.

10:30/19:30
**XXXII. EXTREMADURA**ko Herrialde-Elkarraldi Jardunaldixa. Arraten.

11:00 San Juan XXVI. **TIRO** txapelketia haizezko armekin. Antolatzaillia: Dinbi-Danba. Hezkuntza Esparruan.

12:00 Untzaga Jubilatuen Egoitzakuen **KONTZERTUA**. Sarrera: 2 euro. Coliseoan.

Arratsaldian zehar
**AI LAKET!!**en eskutik BOTILTZARRA programia, alkoholaren prebenziñua gaztien artean.

16:00 Eibarko Hiria **SQUASH SARIA**. Finalak. Antolatzaillia: Eibarko Klub Deportibua. Ipurua kiroldegixan.

17:00/21:00
Eibarko II. **BBOYING** Txapelketia eta **NEW STYLE** I. Txapelketia. Txaltxa Zelaixan.

18:00/21:00
**"L'Animalada"** jolas parkia Katakakrak Antzerki taldiarekin. Urkizun.

23:00 **MALDITA NEREA** taldiaren kontzertua. Untzagan.

23:45/03:00
**AI LAKET!!**en eskutik drogak testatzeko programia. Untzagan. Jarraixan **DJ JUANMA.**



Bboying txapelketia



Tiro txapelketia

info@gerritek.net
www.gerritek.net
SOLUZIO INFORMATIKOAK
Marka guztietako zerbitzu teknikoa eta salmenta
Neurrira egindako software-aren garapena
Gerritek INFORMATIKA
Txaltxa-Zelai, 4-6 Tel: 943-033892

trinmer
Telekomunikazio Instalaziorako Enpresa - 1.305 zkia.
TB seinalea jasotzeko antena-instalazio profesionalak
Satelite bidezko TB / TB digitala
Teledistribuzioak
Konponketak eta mantenimendua
tdtrinmer
www.trinmer.com
Ego-Gain, 2 Bac • Tel: 943 127 350

# IRAZABAL
clínica dental





**Ainhoa Zulueta**
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian, Periodontzian, inplantologian.
**Leongo Unibertsitatea.**
Diplomatua Aho Kirurgian.
**Bartzelonako Unibertsitatea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Autran Institutoa. Bartzelona.**
Etengabeko Formakuntza.
**New York-eko Unibertsitatea.**
Oklusioan Graduondoa.
**Aníbal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**
**8:00**etatik **22:00**etara
**Zapatuetan:**
**10:00**etatik **14:00**etara

# Familiaren Osasuna

## Zure familiaren ahoaren osasunaz arduratzen garelako

**Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu**

**Facebook**en: Clínica Dental Irazabal   Eta **twitter**en: @ClinicaIrazabal



**FINANTZIAZIO BEREZIA.** **Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. GALDETU**

IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

## Domeka 19

**09:00/14:30**
Eibarko Hiria **TXORI KANTARIXEN** XVII. txapelketia, JJJ Memoriala Antolatzaillia: Eibarko Txori Lagunak Laguntzaillia: Euskal Herriko Txori Basatien Ornitologia Federazioa. Arraten.

**09:30** Sanjuanetako LXXXI. **TXIRRINDULARITZA** Sari Nagusixa, gaztientzat. Urteeria Untzagan, helmuga Untzagan. Antolatzaillia: Eibarko Txirrindulari Elkartia.

**12:45** Eibarko Cielito Musika Bandaren **kontzertua** Untzagan.

**18:00/20:00**
**ARKU TIROA**. Antolatzaillia: Urko Arkularien Kluba. Txaltxa Zelaiko kioskuan.

**19:00** Umiendako **ANTZERKIXA**: "Kolore" antzezlana, Gari, Montxo eta Jose Lontxo taldiaren eskutik. Urkizun.

**19:00** Sostoa Abesbatzaren **SAN JUAN KONTZERTUA**. San Andres elizan.

**19:30** **EUSKAL JAIALDIXA**,... eta kitto! Elkartiak antolatuta. Untzagan.

## Martitzena 21

**20:00** Isabel Laspiurren ikaslien **"PIANOAZ DANTZA"** kontzertua. 3 euro. Coliseoan.



**Euskal Jaialdixa**



**Sostoa abesbatza**

## Eguaztena 22

**Egunian zihar**
Ferixako atrakziñuen preziua 0,70 eurokua izango da.

**14:00** Estaziño kalekuen **TXUPINAZUA**.

**17:00/20:00**
Umiendako **PUZGARRIXAK**. Untzagan.

**17:00/20:00**
Papiroflexia **TAILLARRA** eta aurpegixa margotu taillarra. Urkizun.

**19:00** Umiendako **ANTZERKIXA**: "Herriko jaiak" antzezlana, Patxin eta Potxin pailazuen eskutik. Urkizun.



**Estaziño kalekuen txupinazua**

Arregi - Dominguez
ARRAINDEGIA
Bidebarrieta, 4
943 20 11 38
Ego-Gain, 9
943 20 32 09


Mariskoak
Arrain freskoa eta izoztua
Enkarguak hartzen ditugu
Ondarruko arraina

natural
BIO • DENDA
JANARIDENDA EKOLOGIKOA

- pasta - irinak - galletak - gozoak
- ogietan aukera handia
- bertako frutak - barazkiak - landareak
- ontziratu gabe (zerealak, lekaleak, haziak, teak, algak...)
- arrautzak - haragiak (oilaskoa, txahala, txerria...)
- kontserbak -proteina begetalak
- edari begetalak - esnekiak
- ardoak - garagardoak
- bakoitzaren higienea - kosmetika
- garbiketa produktuak
- liburuak

Bidebarrieta, 6
943 56 71 59

- Buyer burdinezko zartaginak
- Kifood zure bizitza aldatuko duen janaria
- Pámies Vitae produktuak: liburuak eta landareetan oinarritutako erremedioak
- Espezifikoak: Ana Mª Lajusticia, Botánica Nutrients, etb.
- Altzolako Ura
- Itsasoko ura

www.naturalbiodenda.com
www.facebook.com/naturalbiodenda





# Eguena 23

10:30 Santuari **ZAPIXA** ipintzia. Ospittalian.

11:00 **SANJUANETAKO ZORTZIKUA**, Usartza Txistulari Bandaren eskutik, musikuak lagunduta. Untzagatik abiatuta.

12:00 **KUADRILLAK** Untzagan batu eta Ustekabe fanfarriak lagunduta, Urkizuraiño jaitsiko dira. GASTE alkartiak antolatuta.

13:00 Lizarrako **DULTZAINERUERI ONGIETORRIXA** Estaziñuan. Kalejiria Untzagaraiño, Udalbatzak, Eibarko Txirrindulari alkartiaren eta Kalamua Judo taldiaren ordezkarixak, Asier Serranok eta kuadrillak lagunduta.

13:30 **PREGOIA** eta jaixeri hasiera emoteko **TXUPINAZUA.** Udaletxian.

13:45 Sanjuanetako **KARTEL** eta **PEGATINA** lehiaketetako sari banaketia. Udaletxian.

17:00/21:00 **KLARIONEZ TAILLARA**: Sanjuanetako munduko kartel haundixena, Lekim Animazioen eskutik. Untzagan

17:15 **EIBARKO KANTUZALEAK** taldiaren emanaldixa. Ego Gain Gerontologia Zentruan.

17:30 Kuadrillak Untzagan batu eta kalejiria fanfarriak lagunduta **ZEZEN-PLAZARAIÑO**.

18:00 **BATUKADA FEMINISTA**, Emakume mahaixaren eskutik.

18:00 Kuadrillen arteko **JOKUAK**. Zezen-plazan.

18:00 Lizarrako **ERRALDOI** eta **BURUHANDI**xen kalejiria Lizarrako Dultzaineruak lagunduta. Urkizutik abiatuta.



San Juan sua

18:00/21:00 "Crusoren lagunak" **JOLAS-PARKIA** Toc de Fusta antzerki taldiarekin. Urkizun.

19:00 **IRULITXA** fanfarriarekin kalejiria. Untzagatik abiatuta.

19:00 **SALBEA** parrokixako abesbatzarekin. San Andres elizan.

19:00 "A cal y canto" **KALE ANTZERKIA** Trapu Zaharra konpaiñiarekin. Untzagan.

19:30 MartxanGO umientzako **DANTZALDIXA** Arnorekin. Urkizun.

23:00/04:00 **BERBENIA** Lisker taldiarekin Untzagan.

23:00 Untzagan, **SAN JUAN SUA** eta Eibarko **DANTZA GARAIKIDE** taldiaren emanaldixa, ...eta kitto! alkartiaren eskutik, eta Queimada, As Burgas Galiziako Etxekuen ardurapian. Untzagan.

00:00 **SAN JUAN KANTUA** eta, jarraixan, **DANBORRADAREN ALARDIA.** Untzagan.



**Zapixa ipintzia**



**Dultzaineroak**

AMAÑA
FONTANERIA
■ Kalefakzio Instalazioak
■ Sukaldeak eta Bainuak
■ Galdara eta Berogailuen Instalazioak
■ Butano, Propano eta Gas Naturalaren Instalazioak
■ Azterketa eta Proiektuak Ordenadorez
■ Aire egokitua
T. Anitua 12
Telefonoa. 943 201 930
fonta.amana@gmail.com

Funeraria·Ehorztetxe
Mugica
EIBAR
ELGOIBAR


Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27
Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)
Bulegoa Eibarko erdialdean


24 orduko zerbitzu iraunkorra
943 20 19 51
www.funeuskadi.com
Euskadiko Lehen Ehortze Taldea
GRUPO Funeuskadi





# Barixakua 24

07:30 **KALEJIRIA** Lizarrako Dultzaineruekin. Zezen-plazara juan-etorrixa eta goiz-erestia.
08:00 **ENBOLAUAK**, Marqués de Sakako bigantxekin. Zezen-plazan.
12:00 Kantautako **MEZIA**, parrokixako abesbatzarekin. San Andres elizan.
12:45 Ertzantzaren Musika Bandaren **SAN JUAN KONTZERTUA**. Untzagan.
16:00 San Juan **TIRO TXAPELKETA** nagusixa, usakumiekin. Antolatzaillia: Sociedad de Tiro al Vuelo. Arraten.
17:00 **PELOTA** jaialdixa. Astelena frontoian.



**Suzko erroberak**



**Soka-dantza**

17:30 "Komando Parranda" **KALEJIRIA**, Likem antzerki taldiaren eskutik. Urkizutik abiatuta.
18:00 "La señorita Lupierr" **ANTZEZ LANA**, Miguelillo antzerki taldiaren eskutik. Untzagan.
19:00 Mexikotik etorrittako **BRASS STREET BOYS** bandaren kalejiria. Untzagan.
19:00 Umien **DANBORRADA**ren urteeria, Oria eta Ustekabe fanfarriak lagunduta. Urkizun.
20:30 Umien **PREGOIA**, Umien Danborradako Danbor Nagusixak irakorritta, eta Alardia. Untzagan.
23:30 **SOKA DANTZA** Usartza Txistulari Banda eta Kezka Dantza Taldiarekin. Untzagan.
00:00 **SUZKO ERROBERAK** Pirotecnia Europlaren eskutik.
00:15/03:00 **BERBENIA** Nueva Alaska orkestarekin. Untzagan.

# Zapatua 25

07:30 **KALEJIRIA** Lizarrako Dultzaineruekin zezen-plazara juan-etorrixa eta goiz-erestia.
08:00 **ENBOLAUAK**, M. Sakako bigantxekin. Zezen-plazan.
11:00/14:00 eta 18:00/21:00 "Asmakizun feria" **JOLAS-PARKIA**. Civic Civiac antzerki taldiaren eskutik. Urkizun.
11:30 San Juan XXIII. **MARMITAKO** lehiaketia, Untzagan.
12:45 Imperial Elegancia Mejicana mariatxiren **KONTZERTUA**. Untzagan.
17:00/20:00 Txapa **TAILLARRA** eta aurpegixa margotu taillarra. Urkizun.
17:00 Cielito Musika Bandaren **KALEJIRIA**, Estaziñotik Untzagaraiño.
18:00 Lizarrako **ERRALDOI** eta **BURUHANDI**en kalejiiria Lizarrako Dultzaineroen laguntzarekin. Urkizutik abiatuta.
18:00 **KALEJIRA** Africa Baj Yay taldiarekin. Untzagatik abiatuta.
19:00 "Txatarra" **ANTZERKI ZIRKUA** Malas Compañías taldiaren eskutik. Untzagan.
23:00 **SUZKO ERROBERAK** Pirotecnia Valecearen eskutik.
23:30 KEN ZAZPI taldiaren **KONTZERTUA**. Untzagan.
Jarraian **TEKNO GABA** DJen saioa.
00:00/03:30era **ALKOHOLAREN PREBENTZIÑO**rako karpa SASOIAren eskutik. Untzagan.












# Ondo pasa Sanjuanetan!!




ondo pasau sanjuanetan

**bokatak, kazuelitak, tapak eta pintxoak**

**URKIZU, 11**

chalcha
RESTAURANTE
JATETXEA

943 20 11 26

www.restaurantechalcha.com



T. Etxebarria, 21
Tel. 943 20 70 07

*Pintxoak eta kafea*

**ONGI-ETORRI**




TABERNA PIZZERIA BOKATERIA

BOSSA

Ego gain z/g 943 20 67 53

**TXOKO**

*Giro alaia Sanjuanetan!*

**UNTZAGA PLAZA, 10**
**20600 EIBAR**

**Zubi-Gain** URKIZUKO DORREETAN



**Urkizu, 11-behea** **Tfnoa. 943-254060**

*Ogitarteko, plater konbinatu, tapa, entsalada eta pintxo berezietan*

ESPEZIALIZATUAK

plater konbinatuak
sartenadak
ogitartekoak
kazuelitak

KOXKA

*Ondo pasa Sanjuanetan!!*

**KOXKA**

ZABALIK 08:00etatik aurrera

**943 82 93 74**

## Domeka 26

08.00 **ENBOLAUAK**, Marqués de Sakako bigantxekin. Zezenplazan.
19.30 **BERBENIA** antziñako doiñuekin, Eibarko Cielito Musika Bandaren eskutik. Untzagan.

## Astelehena 27

16:30 Umiendako **TXOKOLATE-JANA**. Karmen kaleko parkian.
17:00 Umiendako **JOKUAK** (lapikuak apurtzen, zaku-lasterketia…). Karmen kaleko parkian.
19:00 Gorriti eta bere **ANIMALIXAK**. Karmen kaleko parkian. Antolatzaillia: Beheko Tokia.



**Enbolauak**



**San Pedroak**



**Berbenia antziñako doiñuekin**

## Martitzena 28

12:00 **TOKA** eta **IGEL-TOKA** txapelketia. Karmen kaleko parkian.
18:00 "Nathali y sus boleros" **MUSIKA** emanaldixa. Karmen kaleko parkian.
19:00 Emaedamba **BATUKADA** taldiaren emanaldixa. Karmen kaleko parkian.
20:00 **KALEETAN KANTUZ** taldiaren emanaldixa. Karmen kaleko parkian.
21:00 Kaleetan Kantuz taldiari ongi-etorrixa eta **PISKOLABISA**. Beheko Tokixan.
21:30 **DANTZALDIXA**, Tukan taldiarekin. Karmen kaleko parkian. Antolatzaillia: Beheko Tokia.

## Eguaztena 29

11:00 San Pedro **MEZIA** eta konjurua. Akondia Basarrixan.
12:00 Mezia, Eibarko **KORU GAZTIA**rekin. Karmengo Amaren elizan.
13:00 **TOKA** eta **IGEL-TOKA** txapelketaren sari-banaketia eta piskolabisa. Karmen kaleko parkian. Antolatzaillia: Beheko Tokia.




Azido hialuronikoko ile-tratamendu berriak
Khôl Estilistak
Estaziño, 4 943 254776

Isasi, 31
943 207 737
Sanjuanetan ere 06:00etatik zabalik
BOKATAK HANBURGESAK PIZZAK
Zure zain izango gara JAI GIROAN!
KAFETEGIA OKINDEGIA
SUTONDO

San Andres Gozotegia
• tartak
• enkarguak etxera
Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Laguntza Teknikorako Zerbitzu Ofiziala
EIBARSAT
Etxetresna elektriko txikien eta mikrouhinen konponketa, musika kateak, sukaldeko menajea, tresneria txikien piezak...
IFAR KALE 8
Tel./Faxa. 943 20 67 17
20600 EIBAR

# "Dultzaina entzutean, eibartarrak dardarka hasten dira!"

XIX. mendetik Eibarren ohitura den bezala, aurtengo San Juan jaietan ere Lizarrako dultzaineroen doinuak izango ditugu herriko kaleetan. Salvador Martinez, Juan Carlos Duñabeitia eta Gorka Sarasa 2008an hasi ziren Eibarrera etortzen, Miguel Angel Elizagari erreleboa hartu ondoren. Salvador Martinezek azaldu digunez, "*Lehenengo urtean, Miguel Angelekin etorri ginen eta berak erakutsi zigun Eibarren egin beharrekoa. Ezin da hitzekin azaldu Eibarren sentitzen duguna, benetan sinistezina da eibartarrek nola hartzen gaituzten eta adierazten diguten eskerrona eta maitasuna. Dultzaina entzutean dardarka hasten dira eibartarrak. Eskua ematera eta besarkatzera hurbiltzen dira guregana, ume txikien begiekin begiratzen gaituzte, eta pertsona desberdinak bagina sentiarazten gaituzte. Oso emozionantea da!*"
Hirukote honentzako pasioa eta profesioa da dultzaina. Lizarrako musika eskolan klaseak emateaz gain, beste leku batzuetara ere joaten dira instrumentu hau erakustera, esate baterako Debara edo Errioxako hainbat lekutara."*Eibarren ere eman izan ditugu klaseak, Perez Sarasketa zinegotzia izan zen garaian eta Jose Miguel Laskurain eta Elena Perez umetxoak zirenean*", gogoratzen du Salvadorrek.
Dultzaina "chirimía"ren familiako instrumentu tradizionala da, eta "*bere soinua desberdina da jotzen duen pertsona edo herriaren arabera*". Gure inguruan bezala, Eibarren ere dultzaina edo gaiten soinua zuzen-zuzenean dago jaiekin lotuta, eta ekainaren 23an jaiei hasiera emateaz gain, dultzaineroak protagonista izango dira kalejira, erraldoi eta buruhandiekin eta goiz-erestietan. Libratzen duten uneetan Untzaga Plaza hotelean deskantsatuko dute eta Sanjuanak amaitzerakoan Zarauzko jaietara joango dira. San Pelaio jaiak amaitu eta jairik jai jarraituko dute hain gustuko duten lana egiten. Eta konturatu orduko... datorren urtean berriro izango ditugu gure artean.



Salvador Martinez, Juan Carlos Duñabeitia eta Gorka Sarasa Lizarrako dultzaineroak hiru egunetan izango dira gure herrian.







# 89 urte betetzear eta gaztetzen

Danborradak 89 urte beteko ditu aurtengo San Juanetan, baina denborak aurrera egin ahala, urtetik urtera geroz eta indar handiagoa hartzen dihardauen ekitaldia da. Eta, gainera, zahartzen joan beharrean alderantzizko bideari ekin dio, azken urteotan behintzat danborrada nola berritzen eta gaztetzen joan den ikusteko aukera izan dugu eta. Hori gutxi balitz, aurtengo jaietarako konpainia berria gehitu zaie orain artekoei: Eibarko sozialisten ekimenez, 50 bat lagunek Eibarko Herriko Etxea izenekoa sortu dute eta, besteekin batera entsaiatzen ibili eta gero, egun gutxi barru estreinekoz ikusteko aukera izango dugu.

**San Juan bezperako gauerdian**, ekainaren 23tik 24ra bitartekoan Untzagatik abiatuko dira konpainia guztiak, betiko moduan omenduak eramango dituen karrozak, Eibarko Musika Bandak… lagunduta. Aurretik, baina, Untzagan pieza batzuk joko dituzte, Jose Miguel Laskurain Danbor Nagusiak zuzenduta. Tarte batez, baina, Miguel de los Toyos alkateari zuzendari-makila lagako dio, eta honek pixka batean danborrada zuzendu eta gero, orduan irtengo dira kalejiran Eibarko danborradako konpainia guztiak. Udaletxeko plazatik abiatuta, ordu bi eta erdi inguru emango dituzte herriko kaleetan zehar 15 bat pieza danborren erritmora jotzen.

**Umeen danborrada**, berriz, **San Juan egunean** irtengo da, **19.00etan**, eta urtero lez, herriko haurrak Urkizutik Untzagaraino joango dira kalejiran, Oria eta Ustekabe fanfarreekin batera. Aurten ere herriko ikastetxe guztietako haurrek hartuko dute parte danborradan, 400 bat umek guztira eta, horretarako, astero entsaiatzen ibili dira. Umeen Danborrada Untzagara sartzean, 20:30ak aldera, Umeen Danborradako Danbor Nagusiak pregoia irakurri eta, jarraian, ilarak osatu eta alardea eskainiko diote harmailak betetzen egongo den publikoari.

Gaur egun San Juan jaietan horren toki garrantzitsua betetzen duen danborradaren alardea herriko elkarte gastronomikoen eskutik jaio zen. Izan ere, hasieran Alperrak, Batzoki eta Kerizpe elkartekoek jardun zuten antolatzen, handik urte batzuetara, Amalur taldeak erreleboa hartu zien arte. Baina gaur egun betetzen duen tokira ailegatu bada, Jose Luis Perez Sarasketa, Javier Zorrakin, Juan Maria Lejardi "Pastor" eta beste hainbatek urteetan egindako beharrari esker izan da.

Historian izandako bilakaerari errepasoa ematen hasiz gero, sorreratik hona gauza asko aldatu direla nabaria da: lehen urteetan elkarteak protagonista izan arren, gaur egun herri guztiari zabalik antolatzen dute eta, horri esker, herria bera bilakatu da danborradako protagonista. Eibarko danborradari lehen erreferentzia Batzokiak umeen danborrada 1927an antolatu zuela dioten agirietan dago jasota. 1930ean Kerizpek ohiturari jarraitu zion eta, Gerra Zibila amaituta, 1948an Alperrak elkartekoek berreskuratu zuten eta, ia 20 urte geroago, Sinqui izeneko koadrilak umeen danborrada antolatzeari ekin zion.

San Juanei lotuta ezagutu dugun danborrada, baina, hasieran San Andres patroiaren omenezko jaietan ospatzen zen. Diotenez, neguan hotz handia egiten zuelako erabaki zuten San Juanetara aldatzea. 1976an Amalurrek antolatzeari ekin zionetik, Eibarko danborrada etenbarik hazten eta sendotzen joan da. Errepertorioa ere gero eta zabalagoa da: orain dela urte batzuk bakarrik Donostiako danborradako bospasei pieza jotzen zituzten, baina gaur egun Sarriegik idatzitako pieza guztiak ez ezik, Azpeitia, Deba, Mutriku eta Mendaroko danborradetako abestiak ere eskaintzen dituzte. Denera ia 20 kantuk osatzen dute egitaraua: 'Diana', 'Idiarena', 'Mutriku herria', 'Tatiago', 'Arragueta kalean', 'Aupa Mendaro', 'Hau dek hau', 'Eibarko martxa', 'Zezenak dira', 'Debako martxa'... horiek izango dira beste behin gure jaiaren doinuak.

PODOLOGOA
Maider Lopez Etxeberria
65 Kolegiatu zbkia.
Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

San Juan zoriontsuak
Baimendutako Harategia
Gure Kalitatea
Giokela
Carniceria Autorizada
Urkizu, 18 —— 943 120194
MUGIKA

Super BM
Super BM IFA taldea,
zure eguneroko erosketa
GRUPO IFA
Julian Etxeberria, 14-16 Tel. 943 70 15 90

Juan Gisasola, 14
Tfnoak. 943 20 39 02 benicoba@terra.com
BENICOBA
Etxeko tresnak
cenor
Sukaldeko altzariak
BEHAR DUZUNA LORTZEN LAGUNTZEN DIZUGU
Zorionak!

**Kultu:**

Zuloagatarren, 3
Tel. 943 20 84 39









RPS: 233/13
Esther Maestre odontologoa
20570 kolegiatu zkia.

## Etika oinarri hartuta, 20 urtetako odontologia zerbitzuarekin gustura dauden 38.000 paziente Gipuzkoan

**aldaz**
hortz klinikak · clínicas dentales

**San Bartolome, 22 (Elgoibar)**
Ola kalea, 10 (Lasarte-Oria)
**943 36 63 77**




**08:00etatik 22:00etara zabalik**
(astelehenetik ostiralera)

## Hortz-tratamendu guztiak amaieraraino burutzea bermatzen dugu

LETRA TXIKIRIK GABEKO AURREKONTUAK

*Sanjuan zoriontsuak*

www.dentalaldaz.com

TXOSNAK TXALTXA ZELAIAN

# Lau egunerako egitarau betea txosnetan

Errebalgo lanak direla eta, aurten Jaixak Herrixak Herrixandako Jai Batzordeak hainbat proposamen aurkeztu dizkio Udalari "txosnagune duin" bat izateko asmoz. Tratuak tratu, azkenean, aurtengo San Juanetan txosnak Txaltxa Zelaiko kioskoan eta azpiko parkean, eta Txikito kalean ipiniko dira. Dena dela, Jai Batzordeak aditzera eman duenez, Udalaren aldetik gauza asko daude zehazteke eta kolokan, jaiak hasteko astebete baino gutxiago falta den honetan. Hala ere, txosnagunerako lau egunerako egitaraua prestatu dute Eibarko hainbat eragilek elkarlanean.

Jaixak Herrixak Herrixandakok martitzenean plazaratu zuenez, bi desadostasun edo "arazo" nagusi dituzte oraindik, San Juanak gainean dauden arren. Alde batetik, gazte eguneko bazkariaren kokapena "zehaztu ezinik" dabiltza. Euren hitzetan, hasiera batean Udalak bazkaria Untzaga plazan egiteko aukera eskaini zien, baina oraindik ez dute hau baieztatuko duen erantzun irmorik jaso: "*600 lagunentzako bazkaria antolatzeak lan handia ematen du eta Udalak duen jarrera horrekin gure egunerokotasuna baldintzatzen ari dira*". Gauzak horrela, eta inolako erantzunik jasotzen ez dutela berretsiz, bazkaria Untzaga plazan egitea erabaki dutela adierazi dute, Udalaren erantzuna edozein dela ere. Bestalde, Udaletxeak Jai Batzordeari ematen dion diru-laguntzaz ere aritu ziren. Jaixak Herrixak Herrixandakok "onartezintzat" jotzen du Udalaren San Juan jaietako aurrekontua 140.000 euro ingurukoa izatea eta txosnaguneari horren %2'5a ematea: "*Kopuru hau gure inguruko herriek duten diru-laguntzarekin alderatzen badugu, lotsagarria dela konturatuko gara*".

Hala ere, Jaixak Herrixak Herrixandakok jaietarako egitaraua osatu du eta, horren barruan, 12 kontzertu, 2 herri bazkari, trikipoteoak, bertso saioa, elektrotxarangak, tortilla txapelketa, jolasak eta beste hainbat ekitaldi prestatu ditu: "*Antolatutako guztia gure izaera errespetatuz eta aldarrikatuz egingo dugu, beti bezala jai herrikoien, euskaldunen, parekideen eta partehartzaileen alde lan eginez*".

Hilabeteak eman dituzte barixakuero biltzen herriko hainbat eragile politiko zein



San Juan bezperako herri-bazkariak gero eta gazte gehiago batzen ditu mahai-bueltan.

ISASI OKINDEGIA
LANTEGIA
- Elgetako bidea 9
943 70 07 77
DENDAK
- Ego-Gain, 2
943 20 23 40
- Zabaleta (Bidebarrieta, 10)
943 20 02 25
- Tiburtzio Anitua, 25
- Urki, 15

PUBLI RESA
- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...
PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK
Armagin 3 - behea
☎ eta faxa: 943 70 14 97
publi.resa@euskalnet.net

LEGE AHOLKULARITZA / AUDITORIA
Gaurve
Tfnoa. 943 202 461
Fermin Calbeton, 13-15
Faxa. 943 201 125
www.gaurve.es

C&J CERRAJEROS
UCES
Homologatutako enpresa 1502 zkia.
www.CerrajeroGipuzkoa.com
cjcerrajeros@gmail.com
Tel. 943 107 770
Juan Gisasola, 4
EIBAR
Tel. 943 132 314
Araba, 27
ZARAUTZ

# TXOSNAK TXALTXA ZELAIAN

## Eguena 23

13:00 **Dultzaineroei harrera** egin eta Estaziñotik Untzagara igotzea. Jarraian, **trikipoteoa**, Buenos Aires tabernatik abiatuta.
14:30 **Txosnak zabaltzea**.
15:00 **Herri bazkaria** (Bizimina).
17:00 Trikitixarekin **jolasetara**.
19:00 Elektrotxaranga: **Elektrotxufla**.
23:00 **Akelarria** eta, ondoren, **zurrakapotea**.
00:00 **Kontzertuak**: Bibala, Mugi Panderoa eta RP.

## Barixakua 24

11:00 **Txosnak zabaltzea**.
18:00 **Tortilla txapelketa**.
19:30 **Karaoke** ibiltarixa.
22:30 **Kontzertuak**: The Guilty Brigade, Sinnerdolls, Hexen eta Eroa Naizen.

## Zapatua 25

14:30 Presoen eskubideen aldeko **bazkarixa**.
18:30 **Altxorraren bila!**
19:00 Elektrotxaranga: **Txarangazo**.
22:30 **Kontzertuak**: Rude Pride, Nekez, DJ Mapatxe eta Left Hook.




sozial, kirol talde edota norbanakoek San Juanak prestatzeko. Txosna jartzen duen (edota laguntzen duen) eragile bakoitzak ekintza desberdinak antolatzeko ardurak hartu ditu eta horri esker lortu dute egitaraua aurrera ateratzea. Antolatutako kontzertu eta beste ekintzetan hainbat irizpide izan dituzte kontuan: protagonistak eibartarrak izatea, euskaraz jardutea, emakumeen presentzia duten taldeak ekartzea… Gainera, gune askea izanda, txosnagunean ez dute inongo erasorik (homofobo, sexista, arrazista,…) onartuko. Horregatik, NALUA Eibarko Feministek iaz egin zuten bezala, erasoen aurkako protokolo bat abiatuko dute aurten ere. Protokolo hau txosna guztietako kideek ezagutuko dute eta, erasorik egonez gero, nola jokatu eta horren aurrean nola erantzun jakingo dute.

Hilaren 26a izango da egitarauko azken eguna, hauteskunde domeka hain zuzen ere eta, horren aitzakiarekin, txosnagunea ere, mozorro egunaz baliatuz, hauteskunde giroz jantziko da. Jai Batzorde eta hauen laguntzaileen berbetan, "*urtero bezala, ilusioz, gogoz, maitasunez, pozez… hamarnaka pertsonen lanari esker, egitarau zabala aurkeztu dugu jai herrikoien alde*".

## Domeka 26

08:00 Gaupaseruen **argazkixa**.
18:30 **Bertso trama**.
21:30 **Erromerixa**: Erokomeri.
23:30 **Karaokia**.






SAN JUAN SUA

# San Juan Sua: ohitura baino askoz gehiago





1993. urtean berreskuratu zuen ...eta kitto! Euskara Elkarteak aspaldiko tradizioa eta ordutik, kalerik egin gabe, udako solstizioari lotutako ohiturak indarrean dihardu gure herrian. 23:00etan hasiko da ekitaldia eta aurtengo omenduak **Eibarko Txirrindulari Elkartea** (bere 90. urteurrenean), **Astixa** (aisialdi taldeak 25 urte egin ditu), **Judo Klub Kalamua** (domina mordoa pilatu ditu bere ibilbidean) eta **Asier Serrano** idazlea (aurten poesia sari garrantzitsu bi irabazi ditu) izango dira, euren zereginetan bakoitzak orain arte batutako merituengatik.

Sua ixotu aurretik, dena dela, azken urteotan egindakoari jarraituta, Nerea Lodosak zuzentzen duen Ipuruako Dantza Taldeak dantza-ikuskizuna eskainiko du. Aurtengo ikuskizunean *"Eibar hiriak izan duen bilakaera adieraziko dugu, industria-hiritik zerbitzu-hirira egindako bilakaera"*, dio Lodosak. *"Lehen zatian 1920. hamarkadaren bueltako musikarekin hasiko gara, hindy-hop musikarekin. Aurresku berezi bat ere dantzatuko dugu, eta gero swing musikak ere izango du bere tartea. Azkenerako XX. mende amaierako abesti bat erabiliko dugu"*. Janzkerari begira, *"buzoarekin jantzitako emakumeen papera izango da garrantzitsuena. Hor hainbat karakterizazio garatuko ditugu: 1950. hamarkadako emakume beharginena, zapi eta ezpain gorrirekin... Koloretako piezak erabiliko ditugu, tela zuriekin nahastuta"*. Hala ere, azken unera arteko lana da saioa prestatzearena: *"Denbora guztian sortzen dihardugu... ez diogu beldurrik gauzak aldatzeari. Beti arriskatzen dugu eta ondo doakigu horrela"*.

Buzoak, gantxillak, txapelak... izango ditugu San Juan Suaren inguruko dantzen protagonista. Zenbat izango diren dantza egiten? *"60tik 100era arteko tarte horretan gabiltza, antolaketaren arabera. Hori bai: eskertu nahi dut guztien ilusioa eta zelan, konfiantza itsuarekin, den-denak ahalegintzen diren emaitza bikaina izan dadin"*, dio Nereak. Ekitaldiak 15/20 bat minutu iraungo du.


CORREDURIA COSTAMAR

| | | |
|---|---|---|
| AUTOAK | ISTRIPUAK | KARNET KENTZEA |
| ETXEA | DENDA | ASISTENTZIA BIDAIAN |
| EHIZA | ENPRESA | E.P.S.V. PENTSIOAK |
| BIZITZA | AUTONOMOA | INBERTSIOAK |
| OSASUNA | AURREZPENA | BABES JURIDIKOA |
| HILETAK | ERANTZ. ZIBILA | KREDITUA ETA BERMEA |

Urkizu Pasealekua, 11 - Solairuartea - 20600 - EIBAR
Tel: 943-120437 / Faxa: 943-127180 DFGV zkia: MS-224
www.correduriacostamar.com costamar@correduriacostamar.com

astixa
Zezenbide 7, Eibar 20600 Gipuzkoa tlf.943206231

Euskal FERR
KIÑU 2000
BURDINDEGIA
San Juan, 17-19 Telf. 943 200 492 - 943 700 926

ELEKTRIZITATEA
Elurki s.a.
INSTALAZIOAK
BOBINATUAK
TRANSFORMADOREAK
Arragueta zeharbidea, 1
Tel. 943 12 05 95 / 72
Faxa. 943 20 38 53
transfab@electricidadurki.com

# Ondo pasa Sanjuanetan!!


Arkupe
Gastro-Pub
Isasi, 2
TEL. 943 70 26 91

JATETXEA Gurbil
URTEBETETZE JAIAK / GOSARIAK / EGUNEKO MENUA
HITZARTUTAKO MENUAK / PLATER KONBINATUAK
KARTA / HANBURGESAK / OTARTEKOAK / ...
ORDUTEGIA: astelehenetik ostiralera (10.00-16.00/18.00-22.00)
asteburuetan (12.00-etatik aurrera)
Isasi, 1 Tel. 943 20 11 52

SOKOA
EIBAR - ONDARRU
birjiñape, 1 behea
tel. 943 20 71 00
SOKOA

943 20 67 65
Bista Eder, 11
Oishi su beroa jatetxea
Eguneko menuak
Bokatak
Razioak
Menu bereziak

CAFETERIA BAISI
Urkizu 11, Behea - 637 440 511
Gora San Juanak!

OISHI
PINTXO BEREZIAK
CATERING
943 20 29 55
627 41 78 33
Untzaga plaza

AMETSA
Toribio Etxebarrian
I. Gin Tonic lehiaketako IRABAZLEA

Giro ezinhobea, musika bikaina...
SAN JUAN AHAZTEZINAK!!!


EGO-GAIN
Julian Etxeberria, 2
943-207165
OGITARTEKO, KAZUELITA, TAPA ETA PINTXO BEREZIETAN ESPEZIALIZATUAK


BAR URKIZU
URKIZU
Urkizu, 12
943-257275

# KALE ANTZERKIA

## KATAKRAK
### "L'Animalada" jolas parkea

*Ekainak 18, zapatua*
*18:00-21:00, Urkizun*

Soilik material birziklatuez eginiko hainbat eta hainbat jolasez dago osatua jolas parkea. Laguntza gabe dantza egiten duen arrautza, bizikleta-partxisa eta beste hainbat jolas ditu.



## GARI, MONTXO ETA JOSELONTXO
### "Kolore"

*Ekainak 19, domeka*
*19:00, Urkizun*

Magia, musika, umorea eta giro ona eskainiko dute hiru pailazo hauek "kolore" antzezlan berriarekin.



## PATXIN ETA POTXIN
### "Herriko jaiak"

*Ekainak 22, eguaztena*
*19:00, Urkizun*

Hiritarren bizitzara moldatzen ari diren artistak dira Patxin eta Potxin. Suhiltzaileen, zerbitzarien eta abarren jardunak ezagutuko dituzte, ikusentzulegoaren laguntzaz.



## LEKIN animazioa
### "Klarionez tailerra"

*Ekainak 23, eguena*
*17:00-21:00, Untzagan*

San Juanetako munduko kartel handiena egiten ahaleginduko dira.



## TOC DE FUSA
### "Crusoren lagunak" jolas parkea

*Ekainak 23, eguena*
*18:00-21:00, Urkizun*

Eskuz eraikitako zurezko jostailuekin eginiko parke honetan, kuriositatea eta imaginazioa erabiltzera animatzen dituzte etxeko txikienak.



## TRAPU ZAHARRA
### "A cal y canto"

*Ekainak 23, eguena*
*19:00, Untzagatik*

Koldo, 31 urte eta inoiz lan egin ez duen mutila, hirurogei urteko gurasoekin bizi da. Hauek, egoerarekin desados egonda, kalera atera dira protestatzera.



---

GAUR
ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA KONPONKETA ELEKTRIKOAK

ATEZAIN AUTOMATIKOAK ETA BIDEO-ATEZAINAK

Zuloagatarren 9, behea — 20600 EIBAR
Telefonoa 943 20 62 40 — Faxa 943 05 69 23

Catalana Occidente
Seguros




ERANTZUKIZUN ZIBILA / AUTOAK
BIZITZA ETA JUBILAZIOA / OSASUN ASEGURUA / ISTRIPU BANAKAKO ETA KOLEKTIBOAK / ARRISKU ANITZAK

EMILIO DE LOS TOYOS
Erreg. zkia. C046815351532K
Eibarko Txikito, 8
943 200 908 / 610 422 179
emilio.toyos@agentes.catalanaoccidente.com

Oinetakoak
Tribeka
Zuloagatarren, 7
Tfnoa. 943 20 62 24

josi ta josi
konponketak eta jostun lanak



Zezenbide, 2
Telf. 943 254 640

## MIGUELILLO ANTZERKI TALDEA

### “La señorita Lupierre”

*Ekainak 24, barixakua*
*18:00, Untzagan*

Gaur egungo egoerari keñu eginez, magiaz osaturiko istorio zaharra kontatzen du antzezlanak. Baina adi! Antzezlana karabana barruan izanda, 12 pertsonek bakarrik ikusi ahal izango dute.



## CIVIC CIVIAC

### “Asmakizun feria”

*Ekainak 25, zapatua*
*11:00-14:00;*
*18:00-21:00, Urkizun*

12 estruktura desberdin eta 40 artilugio, asmakizun eta makina zientifikoz osatuta dago feria hau. Protagonistak ikusleak izango dira: makinekin jolasean ibiltzeko aukera izango dute.



## MALAS COMPAÑÍAS

### “Txatarra”

*Ekainak 25, zapatua*
*19:00, Untzagan*

Zirko eta kaleko teatroaren ikuskizun honek, adin guztietako ikusleak ondo pasatzera animatzen ditu, horretarako umorea eta objetuen manipulazioa eta akrobaziak erabilita.





*Kale-antzerkiak jendearen arreta pizten du: Markeliñe eta Vaiven iaz.*



EUSKO LABEL
Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada
Bidebarrieta 20
Tlfno: 943 20 16 69
OBEREÑA HARATEGIA

Larragest
API 353 zbk.
INMOBILIARIA / ASEGURUAK
F. Calbetón, 22-24
943 200 012
690 610 715

# SANJUANAK

## "Desberdintasunak sutara", jai parekideen alde

**Eva Perosanz Moral eibartarraren "Desberdintasunak sutara" goiburuko lanak irabazi du** udaleko Berdintasun Zerbitzuaren ekimenez antolatu duten Jai Parekideen aldeko pegatina lehiaketa, Berdintasun Zerbitzuak, Andretxeak eta Emakume Mugimenduak aho batez hala erabakita. Irabazleak barixakuan jaso zuen saria, 200 euroko erosketa-txekea, Patricia Arrizabalaga zinegotziaren eskutik. Pegatina irabazlea txosnetan, tabernetan eta Andretxean izango da eskuragarri.









## Errefuxiatuei buruzko Asylum proiektua Portalean

**Unax Blanco eibartarrak Grezian zuzendutako "Refugiados, camino a ninguna parte" dokumentala ETB-n maiatzak 6an eman zutenetik** hilabete baino gehiago pasatu dela, eta hango errefuxiatuen egoera gero eta latzagoa izan arren notizia izateari laga diola ikusita, "musika, argazki eta irudien bitartez errefuxiatuen egoera salatzeko asmoz" Asylum izeneko proiektua martxan ipintzea erabaki dute. Lehen etapa Eibarren izango du proiektuak, uztailaren 4tik 7ra bitartean Portalean. Uztailaren 4an, 18:30ean Josu Peña argazkilariaren "Lotsa" erakusketa inauguratuko dute eta, horrekin batera, Maite Arroitajauregi, Miren Narbaiza eta Zaloa Urainek kontzertua emango dute. Erakusketa uztailaren 5ean eta 6an ikusgai egongo da, 18:30etik 20:30era eta azken egunean, gainera, Josu Peña argazkilariarekin solasaldia antolatu dute. Eta uztailaren 7rako, berriz, Euskal Telebistan eman zuten dokumentala proiektatuko dute (19:00etan) eta, ondoren, 20:00etan Greziako gaur egungo egoerari buruzko solasaldia egingo da Ane Irazabal (ETB-ko kazetaria), Unax Blanco (dokumentalaren zuzendaria), Dani Rivas (Zaporeak proiektua) eta Iñigo Unzetarekin (SMH GKE-ko kooperantea).

giltzak
SEGURIDAD



Segurtasun handiko ate berriak betiko profesionaltasunarekin.

Zatoz eta informa zaitez!

www.innmotion.es/puertasdeseguridad

Arragueta, 3 - Eibar 943 70 13 91



**Belaustegi**
**BASERRIA** JATETXEA

www.belaustegi.com
San Miguel gaina
Tel. 943 74 31 02

*Ondo pasa Sanjuanetan!*






# MUSIKA SANJUANAK

Zer izango ziren herrietako jaiak musikarik gabe? Jai guztietan musikak sekulako garrantzia dauka eta jai-egitarauak begiratzea besterik ez dago horretaz jabetzeko. Hurrengo egunetan musika mota desberdinak gure bihotzak alaitzen saiatuko dira. Hau da jaietarako prestatu diguten eskaintza zabala. On egin!!!

## Alaitu bihotzak eta... gozatu!!!

Bihar, zapatua (ekainak 18), 23:00etatik aurrera, MALDITA NEREA taldearen kontzertua izango da Untzaga plazan. Murtzian sortutako pop-rock taldeak "Gira dentro" tourra egiten dihardu, eta 2003. urtean sortu zenetik egin duen ibilbidearen errepasoa eskainiko digu Untzagan. Kontzertua amaitzerakoan, DJ JUANMAren emanaldia izango dugu.

Domekan (ekainak 19) CIELITO MUSIKA BANDAk kontzertua emango du Untzagan, 12:45ean, eta 19:00etan SOSTOA ABESBATSAren San Juan kontzertuaren txanda izango da, San Andres elizan. Kontzertuan Alegiako Txintxarri abesbatzak ere hartuko du parte eta orain dela 50 urte sortu zen "Ez dok Amairu" taldearen hasierako abestiak eskainiko dituzte.

Ekainaren 21ean, martitzena, Isabel LASPIURren ikasleen "Pianoaz dantza" kontzertua hartuko du Coliseo Antzokiak, 20:00etan.

San Juan bezperan, ekainaren 23an, urtero bezala, USARTZA TXISTULARI BANDAren Sanjuanetako Zortzikoak emango die hasiera bezperako ekitaldiei. Hitzordua 11:00etan izango da Untzagan. 12:00etan koadrilak bildu eta USTEKABE fanfarrearekin kalejira izango da Urkizuraino. 13:00etan ongietorria egingo zaie Estaziño kalean LIZARRAKO DULTZAINEROEI eta, kuadrilek lagunduta, kalejiran joango dira Untzagaraino, aurtengo omenduekin batera. 17:15ean Ego Gain Gerontologiko Zentroan Eibarko KANTUZALEAK taldearen emanaldia izango da. 18:00etan Emakume Mahaiaren BATUKADA FEMISNITAK kaleak alaitzen jardungo du, eta 19:00etan Untzagatik kale-


Maldita Nerea



Lisker


Batukada feminista



FISIOTERAPIA
MUGI
Eider Mugica Aristondo
Tel. 669 735 925
Egigurentarren, 18

TXUTXUFLETAS
PRENTSA
ALDIZKARIAK
GOZOKIAK
FRUITU LEHORRAK
• OGI BEROA
T. Etxebarria, 24
TEL. 943 20 60 10




EGUREN & ASOCIADOS
ABOGADOS
Jose Vicente Perosanz
Mª Luisa Soroa
Marta Valera
Iratxe Uribezubia
Tel. 943 204 194
Faxa. 943 820 006
Urtzaile, 1
egurenyasociados@gmail.com

# SANJUANAK MUSIKA


Ken Zazpi


Nueva Alaska

jira irtengo da IRULITXA fanfarrearekin. Ordu berean, San Andres Elizan Salbea izango da PARROKIAKO ABESBATSA-rekin. 19:30etik aurrera, Urkizu Parkean MartxanGO umeentzako dantzaldia eskainiko du ARNOk.

San Juan bezperako gabean, 23:00etan LISKER taldearen berbena hasiko da Untzagan.

San Juan egunean, ekainaren 24an, barixakuan, San Andres Parrokian meza kantatua izango da PARROKIAKO ABESBATZArekin 12:00etan. Eta 12:45ean, berriz, Untzagan ERTZANTZAKO MUSIKA BANDAren San Juan kontzertua. Arratsaldean, 19:00etan, Untzaga plazan, Mexikotik etorritako BRASS STREET BOYS bandaren kalejira izango dugu. Eta gabean, suzko erroberak amaitu bezain pronto, NUEVA ALASKA orkestrak berbena eskainiko du.

San Juan Txiki egunean (ekainak 25, zapatua), 12:45ean, Untzaga plazan, IMPERIAL ELEGANCIA MEJICANA MARIACHI-ren kontzertuarekin gozatzeko aukera izango dugu. Arratsaldean, 17:00etan CIELITO MUSIKA BANDAk kalejira egingo du Estaziñotik Untzagaraino, eta 18:00etan AFRICA BAJ YAY taldearen kalejira hasiko da Untzagan. Gauean, 23:30etan, KEN ZAZPI taldearen txanda izango da. Eibartarren eta kanpotik etorriko diren askoren gozamenerako kontzertua eskainiko du Eñaut Elorrietak bere taldekideekin batera Untzagan. Jarraian Tekno Gaua DJen saioa izango da.

Sanjuanei amaiera emateko, ekainaren 26an, domekan, antzinako doinuekin berbena izango dugu 19:30ean EIBARKO CIELITO MUSIKA BANDAren eskutik.


DJ Juanma


Brass Street Boys




TUTULUMENDI




IDURRE IRIONDO

# Hauteskundeei **etakitto.eus webgunean** egingo diegu jarraipena

**Iazko abenduan egindako Espainiako Kongresu eta Senaturako hauteskundeen emaitzekin gobernua osatzeko** modurik aurkitu ez dutela eta, ekainaren 26rako berriz deitu dituzten hauteskundeak San Juan jaiekin batera ailegatuko zaizkigu guri. Gainera, oraingoan San Juan Txiki zapatuan ospatuko denez, jaiak egun bat luzatzeko hainbat ekitaldi domekara pasatu dituzte eta, beraz, hauteskunde egunean Bixamona kaleratzeko argazkiak egiten ibiliko gara oraindik. Hori dela eta, hauteskundeak izan diren bakoitzean hurrengo egunean kioskoetan banatzeko ale berezia kaleratu dugun arren, oraingo honetan ezin izango dugu horrelakorik egin. Hala ere, Eibarko emaitzei jarraipena berdin-berdin egiteko asmoa daukagu, baina horiek internet bidez, www.etakitto.eus webgunean emango ditugu argitara hauteskunde gauean bertan. Beraz, emaitzak auzorik auzo ikusteko, aurreko hauteskundeetako emaitzekin konparatzeko eta bestelako informazioa jasotzeko sartu gure webgunean, horiek guztiak eskuragarri izango dituzue eta.











# *AUTOEN gehigarria*







**GAURSA**
**Otaola, 22 - 20600 - Eibar - Gipuzkoa - Tel. 943 820 874**
www.gaursacenter.com
Kontsumo mistoa: 3,8 - 6 l/100km. $CO_2$ isurpenak: 99 - 138 g/km.




# 11 radar berri izango dira gure errepideetan

Guztira 11 radar fijo berri izango dira Eukal Autonomi Erkidegoko errepideetan. Kabina hauetako gehienak aktibatuta egon ziren 2011n, eta 32 kabina berri jarri zituztenean "zaharrak" desaktibatzea erabaki zuen Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak. Orain dela aste batzuk berriro aktibatu dituzten horiekin, guztira 75 radar fijo ditugu gaur egun EAEn: 32 Bizkaian, 28 Gipuzkoan eta 15 Araban. Modu horretan, bikoiztu egin dute orain dela sei urte zegoen radar kopurua.

11 radar berri horietako zortzi Bizkaian daude (horien artean Malmasineko tunelaren barruan), bi Gipuzkoan eta bat Araban. Eta zergatik erabaki zuten 2011n horiek desaktibatzea? galdetuko diozue zeuen buruari: *"Segurtasunean hobekuntzak eman ziren eta istripu kopuruak behera egin zuen. Horretaz gain, zona horietan bazeuden beste radar batzuk"*, izan ziren orduan emandako arrazoiak.

Sei urte geroago kanbina hauek berpiztu egin dituzte. Arauak esaten duenari jarrituz, kabinak aurretik seinaleztatuta daude metro gutxitara kokatutako kartel baten bitartez, eta identifikatu ahal izateko plaka hori bat jarri diete. Horretaz gain, gehienezko abiadura adierazten duen pegatina bat ere jarri zaie. Radar hauek berriro martxan jartzearen arrazoiak desberdinak dira, Segurtasun Sailetik aditzera eman dutenez. Kasu batzutan zona arriskutsuak dira, beste batzuetan abiadura har daitekeen rekta bat izan daiteke...

Azken bi urteetan tresna horien bitartez jarritako isunen kopurua %31 hazi da 2015ean Ertzaintzaren detektagailu fijo eta mugikorrek 627 arau-hausle detektatu zituzten egunero, eta 2013an, aldiz, 477 pertsona *"harrapatu"* zituzten. Aurten, radar fijoen bitartez, 13 milioi euro batzea espero du Segurtasun Sailak.

Talleres Caño
Ibilgailuen mantentze integrala
Oscar Caño Rubio
Urki 31 Behea
(Armagin 8 ac)
943 530 870
639 517 044
Oscarc.rubio@gmail.com

GASOLEOEN BANAKETA
ZERBITZU ONENAREN SARIA
estación de servicio kantoi eibar
20.000 L.
2.000 L.
Otaola etorbidea, 13 -Bis
Tfnoa. 943 20 73 74 / 94 671 02 77
24 ordu
GAUEZ ZERBITZU AUTOMATIKOA

AUTO KONPONKETAK
AURRERA
● Mekanika - Elektrizitatea
● ITVrako errebisioak
● Frenoak - Amortiguazioa
● Mantenimendua - Erroberak
Urtzaile, z/g
Telefono eta Faxa: 943 20 80 65
20600 EIBAR
(Gipuzkoa)

www.garbibox.com
garbibox eco
auto-garbiketak
limpieza-vehículos
----ERA GUZTIKO GARBIKETAK----
El Corte Ingles. Ego Gain, 7 Tel.: 688 649 837
BERRIA: Hambreko gasolindegia (Mallabia) / 629 777 106
GARBIKETA: Autoak, motorrak, furgonetak, karabanak, kamioiak, itsasontziak, aeronautika...
Lanean zaudela, autoa jaso, garbitu eta bueltatuko dizugu
Era guztiko tapizerien garbiketa eta konponketa
(oihalak, larrua, sky...)
Sofak, alfonbrak, moketak...
Etxeen garbiketa, obren amaierak, bulegoak...
ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA

## J.A. LASKURAIN
ASEGURU ARTEKARIA S.L. D.G.S. 1.408 - J
LEKUZ ALDATU GARA
RAC VASCO NAVARRO
R.A.C.V.N.-ren ordezkaritza
J. Etxeberria, 7 (Aldapatxo)
Telf. 943 70 28 87 / 943 20 37 13
943 12 05 30 / Faxa. 943 70 28 87
ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK

www.AUTOBOX.BIZ
ALQUILER DE BOXES
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA
ERREMINTAK ETA AHOLKULARITZA DOAN
OSAGAI, ORDEZKO ETA NEUMATIKOEN SALMENTA
ASTELEHENETIK OSTIRALERA 09.30-13:00 / 15:00-20:00 LARUNBATETAN 09.30-13.30
Ibur Erreka, 38 - Olarreaga Auzoa, 38
*(Eibar eta Ermuaren arteko probintzia mugan)*
Tfnoa. 943 20 72 44 Mobila: 651 85 50 60
www.autobox.biz
autobox@autobox.biz

MAPFRE ASEGURUAK
LOURDES URZURIAGA
*987 ZENBAKIDUN DELEGATUA*
AUTO ASEGURUAK
JUBILAZIO PLANAK
BIZITZA ASEGURUAK
INBERTSIO FONDOAK
ETXEBIZITZA ASEGURUAK
Sostoa, 1 - behea (EIBAR) lurzuri@mapfre.com
☎ 943 820 449 Faxa: 943 820 609 Mobila: 607 401 929

Torrekua, 2
20600 EIBAR
Tel. eta Faxa
943 20 62 48
Tel. 943 20 70 31
eseibar@facilnet.es
ESTACION DE SERVICIO EIBAR, S.A.
AVIA
FURGONETEN ETA AUTOMOBILEN GARBIKETA
AUTOMATIKOA ETA PRESIOAREKIN
LUBRIFIKATZAILEAK
GASOLEOEN ZUZENEKO BANAKETA
**24 ordutan zabalik**
**www.estaciondeservicioeibar.com**

# PIVE DAYS
AZKEN 6 UNITATEAK
PIVE-REN AZKEN EGUNAK
FORD
KUGA
TREND 2.0TDI 120CV


- 8"-ko ukimen-pantailarako nabigatzailea
- 17"-ko aluminiozko uztaiak (llantak)
- Klimatizagailua
- Parking sentsorea

5 URTEKO BERMEA
20.500€
Ford KONDIA
Otaola Etorbidea, 22
Eibar, GIPUZKOA
943 202 091
www.fordkondia.com
Santamaña auzoa, 19
Iurreta, BIZKAIA
946 815 569
www.fordkondia.com
Ekainaren 30era arte edo stock-a amaitu arte balioko du eskaintza honek. Promozio hau ezingo zaio gehitu beste eskaintza edo deskontuei. Zergak eta Pive plana barne. Matrikulazio-gastuak ez daude barne. Ford credit-ekin finantzatuta. Galdetu baldintzak.

# Gidari askok ez dakite biribilguneetan gidatzen

Hiru auto gidaritik bik ez dakite nork daukan lehentasuna biribilgune batera sartzerako orduan, AXAko Frenoa Jarri Ikerkuntza Zentroak egindako txostenaren arabera. 25.000 pertsonatik gora hartu dute parte inkesta honetan.

Biribilguneetan gertatzen diren istripuen %80 bertan sartzerako orduan gertatu dira. Azken 11 urteetan, bederatzi pertsona hil dira biribilguneren batean sartzerakoan. Beste ezbeharrak talken ondorioz gertatu dira, biribilgunean geldirik geratutako bi autoren kasuan, hain zuzen. Gainera, istripu gehienak autoek sortu dituzte.

Gidari gehienek ez dakite nola hartu behar diren biribilguneak. Mota ezberdinetakoak dauden arren, biribilgune guztiek daukate gidatzeko arau berbera. Hasteko, barrukaldetik doazen autoei eman behar zaie lehentasuna. Bestalde, gure irteeraren arabera aukeratu behar da erreia bertatik doazen ibilgailuei lehetasuna emanez. Biribilgunetik irteteko, aurretiaz kokatu beharra dago kanpoko erreian, eta denborarik ez balego, beste itzuli bat eman beharko litzateke.

Txirrindulari multzo bat dagoen biribilgune batera sartzean, euretako azkena sartu arte itxaron behar dugu, ibilgailu bakartzat hartu behar dira-eta tropelak. Gidarien %40k ez dakite txirrindulari-tropelak ibilgailu bakartzat hartu behar direla. Beraz, gidari horiek ez dira gai izango arauak errespetatzeko, eta horrek arriskua sor dezake bai txirrindulariarentzat bai gainerako auto gidarientzat.



**A Autoa** (Urdina) era egokian irten da biribilgunetik.
**B autoak** (Berdea) ere ondo egin du biribilgunea.
**D autoak** (Laranja) bi erreiak moztu ditu, oso arriskutsua den maniobra eginez.
Kasu bietan gaizki irten da biribilgunetik **C kotxea** (Gorria).
**E autoak** (Larrosa) aurretik utzi behar zuen erdiko erreia.


ACITAIN, S. A.
Zerbitzugunea
AVIA
● 24 ORDUKO ZERBITZUA
● Gasoleoen zuzeneko banaketa
● Garbiketa automatikoa eta presioarekin
Tel. 943 12 16 62 Tel./Faxa. 943 12 18 62 acitain@gmail.com

VALDI
TAILER MEKANIKOAK
Autoen konponketa orokorra.
Injekzio mekaniko eta elektronikoa.
Aire egokitua.
Injekzio elektronikoa gasoila.
Alarmak, errobera aldaketak,
motorrendako erroberak…
Barakaldo 19, behea
Telf. 943 12 73 98
Mob. 639 004 603
tmvaldi@hotmail.com
Talleres VALDI

ZURICH
Lejardi S.L. Aseguru Agentzia
Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

KONPONKETAK
LAIGOR
ferca
T. Anitua 3
Tel. 943 20 18 99

Carrocerías ARANE
GURE TAILERRETAN
◆ KARROZERIAK OROKORREAN ◆ TAPIZERIA GARBIKETA
◆ BANKADA UNIBERTSALA ◆ MEKANIKA
◆ PINTATZE LABEA ◆ NEUMATIKOAK
Arane, 6 - 3. arane.carrocerias@hotmail.com
Tel. 943 70 26 20 / Fax. 943 12 19 54

# Heriotzen %10 medikamentuen ondorio dira

Errepideetako ezbehar kopuruan eragiten duen beste oztopo bat agertu dela aditzera eman du Garbiñe Saez Eusko Jaurlaritzako Trafikoko zuzendariak. Edo, hobeto esanda, orain arte ezagutzen ez zen faktore bat aurkitu da. 2015. urtean errepideetan gertatutako hamar heriotzetatik bat botiken kontsumoak eraginda izan zen, aurreko urteetakoen bikoitza. Osakidetzatik argitu dute "*paziente gehienek ez dituztela ezagutzen medikamenduek dituzten albo-ondorioak, eta ez diotela gai horri garrantzi handirik ematen*".

2015. urtera arte auto istripuetan medikamentuek eragindako hildakoen zenbaketan gaindosiak ere kontuan hartzen ziren, eta hala ere, orain zenbaketatik kanpo geratuta ere, %5etik %10era igo da kopuru hori.

"*Akatsa dago pentsatzean psikofarmakoak direla gidatzea eragozten duten bakarrak, edozein medikamenduk izan ditzake albo-ondorioak,* ventolin *eta* omeoprazol *barne*", dio Juan Pablo Arruabarrena Osakidetzako Larrialdietako zerbitzuaren zuzendaritzako kideak.

Trafiko Zuzendaritzak azken aldian egindako kanpainetan arreta jarri du GPSaren eta mugikorraren erabilera murrizten, farmakoen erabilera ahaztuta utzita. Honen arrazoia izan daiteke farmakoen erabilera izugarri igo dela azken urteotan, batez ere 2008. urteaz geroztik krisialdia hasi zenetik. Osakidetzaren arabera, euskaldunen laurdenak nork bere kabuz hartzen ditu sendagaiak, eta egunero gidatzen dutenen %20k tratamendu bat jarraitzen dute.



Botikek modu desberdinean eragiten dute pertsona bakoitzarengan, eta dosi berarekin batzuk gidatzeko moduan egongo dira, eta beste batzuk ez. Hala ere, "*kontsumitzaileen %75k ez dituzte ezagutzen botikek izan ditzaketen albo-ondorioak*", adierazi du Juan Pablo Arruabarrenak.

1992tik Europar Batasunak (EU) hiru mailatan banatu ditzen medikamenduak: ustez seguruak direnak, efektu kaltegarri arin edo moderatuak eragin ahal dituztenak eta larriak edo arriskutsuak direnak. Arriskutsuenak diren farmakoak *benzodiapezinas*, *antihistaminikoak*, *antiepileptikoak*, *neuroleptikoak* eta *analgesikoak* dira.


AUTO - RECAMBIOS Umbe
**Barrena, 11** *umbe.holyauto@hotmail.com*
Tel. 943 12 04 00 Fax. 943 70 20 65
Autoarendako hornidurak eta ordezko piezak
Holy-Auto

garajesGarcía.com
SAN JUAN JAI ZORIONTSUAK !!!
Auto berrien, erabilitakoen eta KM0-koen salmenta
BOSCH Service Car Service
ENGANCHES ARAGON
BANATZAILE OFIZIALA: Enganches ARAGON
943 202 214 / 943 127 271

Autos Amedi
SALMENTA eta KONPONKETA
autosamedi@telefonica.net
CITROËN
Zearreko buelta, 3 zkia. - ERMUA
717 067 879
943 170 414

Tailer ad profesionalak

# ARRATEKO BERTSO-AFARIA



## Bertso-afariko sarrerak hilaren 27an salgai bazkideentzako

Egun horretatik aurrera eta uztailaren 8ra arte ...eta kitto!-ko bazkideek izango dute sarrerak erosteko aukera, 31 eurotan, 10:00etatik 14:00etara eta 18:30etatik 20:00etara, ...eta kitto!-n bertan, eta bazkide bakoitzak sarrera bana erosi ahal izango du. Uztailaren 8tik aurrera, bestalde, 32 eurotan salduko dira Sagar Bitza, Kultu eta Kantabrian. Aurten Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Agin Laburu eta Maialen Lujanbiok jardungo dute bertsotan, irailaren 7an, eguaztena, urteroko moduan Kantabria jatetxean.



Kantabrian Arrate bezperan egingo den bertso-afarian Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio eta Agin Laburu (goian) izango dira.

Aurten 24. edizioa beteko du 1993an sortutako tradizioak. Orduko hartan, Juan Mari Narbaiza eibartarrarekin batera, Peñagarikano izan zen; jakina, urtero-urtero kale egin ez duten Lizaso eta Egañarekin batera. Aurten, bestalde, aipatutako biekin Maialen Lujanbio handia (hau ere hainbat alditan izan dugu gurekin, azken urteotan batez ere) eta Astigarragako Agin Laburu izango dira. Azken hori hirugarrena izan zen Gipuzkoako azken txapelketan, Beñat Gaztelumendi txapeldunaren eta Alaia Martin azpitxapeldunaren atzetik. Laburu Hernaniko bertso-eskolako produktua da eta azken aldian gero eta plaza gehiago egiten dihardu. Parte hartu du, aldi berean, azken Bertsolari Txapelketa Nagusian. Hori bai, Arraten lehenengo aldiz izango dugu, Euskal Herriko sei txapelekin batera: Egañak lau ditu eta banarekin daude Lizaso eta Lujanbio.

Gai-jartzailea, bestalde, lan horretan iaz debutatu zuen Ion Mikel Mujika izango da. Harek zazpi urtetan jardun zuen Asier Ibaibarriagaren lekukoa hartu zuen, Ermukoak aurretik hainbat urtetan Rafael Zubizarretak gaiak aurkezten eta bertso-saioa zuzentzen egindako ibilbideari jarraitu zion moduan.

EL TIO PALANCAS
• OLIBAK
• GOZOKIAK
• URTEBETETZE ETA EZKONTZETARAKO POLTSAK
• TXUTXEEKIN EGINDAKO TARTA PERTSONALIZATUAK, BROTXETAK...
Egunero zabalik
JUAN GISASOLA, 8
665 70 20 82

943 201213
602 451225
IbaiOndo inmobiliaria
Bidebarrieta 24, baxua
ZURE INMOBILIARIA
Operazioa gurekin itxi ezkero etxe eta lokalen erreformetan deskontu ikusgarriak.
INTERIORISTA: Nagore Goikoetxea
(mokka interiorismoa)
www.inmoibaiondo.com
ibaiondo@inmoibaiondo.com




IÑAKI REZOLA
HARATEGIA
San Juan zoriontsuak!
Errebal, 23 – Tel. 943 201 729

# Herri-kirol modalitateen erakustokia izango da etziko Euskal Jaialdia

Azkar batean etorriko zaigu aurten Euskal Jaialdia. Urtero bezala herri-kirol modalitateen poupourria eskainiko digu ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen jaialdiak. Domekan arratsaldeko 19:30ean dugu hitzordua, Untzaga plazan eta jubilatu Etxeko aldean. Sei aizkolari (Jose Felix Zubizarreta azpeitiarra, Goizeder Beltza etxarriarra, Ioritz Gisasola "Izeta II.a" 18 urteko zarauztarra, Igor Dañobeitia bizkaitarra eta Ernesto Ezpeleta "Bihurri" eibartarra eta Hodei honen semea) eta hiru harrijasotzaile, hirurak ere Aiatik datozenak (Agustin Landarbide eta Joseba Ostolaza eta Udane azken honen 11 urteko alaba) eta Karlos Aretxabaleta Iparraldeko jokoetarako izango dira jaialdian bilduko diren kirolariak, guztiek ere euren onena emateko asmoz.



Emakumeek beti hartu dute parte Sanjuanetako Euskal Jaialdian. Aurten Udane Ostolaza Joseba bere aitarekin izango da.



Antolatzaileek esan digutenez, *"erakustaldiarekin hasiko da jaialdia, motorrak berotzen joateko"*, tartean hainbat lehiaketa prestatuz. Gero hiru talde edo ekipo osatuko dituzte eta aizkorarekin, harria altxatzen eta korrika, hiru modalitate horietan banatuta, jokatuko da San Juan Saria: *"Aizkolariek seina korte egin beharko dituzte bikoteko, hau da, sei enbor moztuko dituzte; gero harriekin egin beharrekoak burutu eta, azkenik, erabakiko da hirukoteka zenbat buelta egin antxintxiketan"*. Iparraldeko jokoei dagokienez, Aretxabaletak lastoa jaso, lastoa bota eta ingude jasotzea egingo ditu, batez ere.

*"Ordu eta laurden"*, horren bueltan egongo da jaialdiaren iraupena. Ez da astirik egongo jendea aspertzeko, aurreko urteetan ere ondo erakutsi dutenez: *"Oso lehia parekatuak izan dira beti eta gara iaz hasitakoak; 23 urte dira Euskal Jaialdia egiten hasi ginenetik"*, diote domekarako prestaketan jardun dutenek.

24 urte eibartarron zerbitzura
EGOLAN CB
Tfnoa. 943 20 22 39
Mobila. 617 16 33 82
egolan.eibar@gmail.com
AHOLKULARITZA eta GESTIOA
EGOLAN
Julian Etxeberria 7, 7.-C
Eskerrik asko eta ondo pasa Sanjuanak

San Agustin, 2-4
943.821.850
premierclass
viajesbidaiak
ZUEN BIDAIETAN
primeran!!!
ETA SANJUANETAN
EIBAR FOOTBALL TALDEAREN BIDAIA AGENTZIA OFIZIALA

## Boxeo eta sanda jaialdia gaur gauean

**Gaur 22:30ean hasita Sanjuanetako ohiko boxeo jaialdia egingo da Astelena frontoian,** guztira zortxi borroka hartuko dituen emanaldian: boxeoko bost eta sanda borroka modalitateko beste hiru. Amateur mailako boxeo norgehiagokak honakoak izango dira: Fortunato vs Libreros, luma pisuan; Andoni Dominguez vs Jesus Guerra, super-arin pisuan; Jon Nuñez vs André Abrego pisu arinean; eta, amaitzeko, Kevin Valdospino vs Fernando Macole eta, emakumezkoen arteko lehian, Alazne Fenoy vs Jessica Brunet, azken bi borroka horiek luma pisukoak. Sanda modalitatean, profesionaletan, Ramon Quinak zuzentzen duen Ttatt gimnasioko hiru ordezkarik hartuko dute parte: Sulei Samadik, Jesus Mari Guzmanek eta Mikel Astigarraga "Asti"-k Aitor Perez, Kevin Buitrago eta Gotzon Indamendi izango dituzte aurkari, hurrenez hurren.



*Sanda borroka modalitatean profesionalek jardungo dute gaur.*

## San Juan pilota torneoaren 22. edizioa bihar

**Lau partidu hartuko ditu Astelenak bihar Klub Deportiboko pilota batzordeak antolatutako torneoaren finaletan.** Hasteko, benjaminen artekoa: Segurola eta Ibarra Oruezabal eta Arrietaren aurka. Ondoren, infantiletan, Camina eta Abalosek Azkargorta eta Fuentesi egingo diete aurre. Hirugarren neurketan, lau eta erdiaren barruan jokatuko den leheian, Zubizarretak eta Narbaizak neurtuko dituzte indarrak. Amaitzeko, binaka nor baino nor Briongos/Barrio II.a eta Agirresarobe/Lantz bikoteek borrokatuko dute garaipenaren bila. Jaialdia goizeko 11:00etan hasiko da. Bestalde, Udaberri Torneoko lau eta erdairen finalerdian Eibarko **Agirresarobek** ***(argazkian)*** amore eman behar izan zuen LAPKEko Egibururen aurrean (12-22).





## Kirol proba ugari Sanjuanetan

**Aurreko barixakuan San Juan igeriketa sariaren 28. edizioa jokatu zen** Ipurua kiroldegian, Urbat-ek antolatuta. Hala ere, ez da kirol modalitate bakarra torneoak antolatzen jai hauetan. Horrela, hurrengo egunotan beste hainbat izango ditugu jokoan. Dinbi-Danbak **25. tiro txapelketa** antolatu du biharko haizezko armekin Hezkuntza Esparrua, 11:00etan hasita. Arratsaldeko 16:00etan **Eibarko Hiria squash saria**ren finalak jokatuko dira Ipurua kiroldegan. Domeka goizean **Eibarko Hiria txori kantarien 17. txapelketa** izango da jokoan Arrate, Eibarko txori Lagunak antolatuta. Urko Arkularien Klubak, bestalde, **arku tiro erakustaldia** egingo du Txaltxa Zelaiko kioskoan etzi 18:00etan hasita. Eta hilaren 24an **San Juan tiro txapelketa** nagusiak izango du hitzordua Arraten usakumeekin.

Jorge Imaz Bolinaga
KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA
– ABOKATUAK –
Bidebarrieta, 6 - 1. ezk. Tlf. 943 53 03 03
imazjorge@hotmail.com

SLOW
Ego Gain, 10 943 25 41 33

CENTRO OM ZENTROA
Zezenbide, 1 – behea ezk. -EIBAR-
627 916 746 / 943 208 324
– Osteopatia
– Kiromasajea
– Reflexologia
– Radioestesia terapeutikoa
– Reiki: 1, 2 eta 3 Mailak
– Maisu Federatua 2975 zkia.
ESPEZIALITATEAK: Lunbalgiak / Ziatika / Estresa / Antsietatea / Beldurrak / Min kronikoak / Erreuma / Artrosia...

XOK
Ondo pasau!

# Ondo pasa Sanjuanetan!!


GURE LEKU
Isasi, 3
20600 EIBAR
☎ 943 20 71 89

Sanjuanak Belekon 2016

MARTXA eta juerga giro onean
645 65 13 09
bar aldatz
ONDO PASAU Sanjuanak
San Juan, 3

ipuR
Sagardotegia
eguneroko menuak • asteburuko menu berezia
sagardotegiko menuak • karta • bokatak • razioak
pintxoak eta gure txapel bereziak (hanburgesak)
Otaola, 5. EIBAR ipursagardotegia@hotmail.com 943 700 119

eibar EZDOK ROCK
HEMENGO ETA HANGO GARAGARDO ARTISAUAK.
MUSIKA ETA GIRO JATORRA
BREW DOG POINT
Toribio Etxebarria 18, Eibar

Goizeko 07.30etatik zabalik
ondo pasa Sanjuanak eta Sanpedroak!!!
bar manuel
(JUANITO)
Urkizu, 5 943 12 16 57

Kili Kili
☎ 943 20 24 01
- Gosariak
- Plater konbinatuak
- Eguneko menua
Egunero 07.00etan zabaltzen dugu

hirurok
TABERNA
Errekatxu, 1
Tel. 943 56 72 06

TUNEL-PE bar
Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Pintxoak
San Juan 3
☎ 943 700 641

telepizza.es
Oinarrizkoa masa da
San Juan, 15
943208989

## Aitziber Urkiola eta Jokin Muñoz nagusi Galdaramiñoko igoeran

**Domeka goizean jokatutako VIII. Galdaramiñoko igoeran mendarotarra** (1:25:10) eta eibartarra (1:42:10) izan ziren lehenengoak helmugaratzen, bakoitza bere mailan. Mutiletan Sergio Garciak (1:26:13) eta Ruben Arrizabalagak (1:26:26) osatu zuten podiuma; eta nesketan, berriz, Miren Gallastegik (1:51:39) eta Iratxe Arrizabalagak (2:08:27). Oraingoan 48 korrikalarik hartu zuten parte 18 kilometroko distantzia eta 925 metroko desnibela dauzkan mendi lasterketan eta, ibilbidean, Galdaramiño (669m), Azkonabitza (726m), Topinburu (590m ) eta Ilordo (500m) gainak igo behar izan zituzten korrikalariek. Bestalde, iaz Jose Maria Bernedo eibartarrak ezarritako markak (1:20:28) indarrean jarraitzen du.



*Urkiolak lan polita egin zuen Galdaramiñoko proban.*

## Gipuzkoako txapeldun berriak "Lehendakari" ere irabazi zuen

**San Miguel klubeko Jabier Osorok une honetan dagoen bolaririk onena** dela erakutsi zuen aurreko zapatuan Bergaran jokatutako Lehendakari txapelketan, *"kale bakar bat egin gabe: bost kanporaketan, 30 txirlo posibletik 18 bota zituen"*. Sergio Rodriguez eibartarrak bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen, eta Asola Berrikoaren atzetik sailkatu ziren Santos Muñoz (Floreaga) eta Xabier Ortuzar (Elgeta).



*Jabier Osoro.*




*Iñigo Unanue Zarautzen.*

## Unanue bigarrena V2 beteranoen mailan Zarauzko triatloi luzean

**Delteco Eibar Triatloi taldeko bost ordezkarik hartu** zuten parte Zarautzen jokatutako Euskal Herriko triatloi zirkuitoko proba nagusian. Triatloi luze horretan Eneko Llanos eta Ainhoa Murua handiek irabazitako proban, Pello Osoro izan zen eibartar azkarrena, 19. postuan. Atzetik izan zituen Iñigo Unanue (91. eta bigarren V2 beteranoetan), Ioseba Tamayo (186.), Joseba Ortega (188.) eta Iñigo Villaba (375.). Bestalde, domekan jokatutako Donostiako triatloi sprintean, Txomin Osoro 12. izan zen, Gonzalo Saez 56. eta Adrian Galan 266.

Siglo XXI glamour art
ILEAPAINDEGIA



Julian Etxeberria, 20
943 257438
Glamourra prezio onean

MGS Seguros
Asier Lejardi Seoane
seguros PATXIFOR aseguruak
943 20 64 89 patxifor@mgs.es 667 97 04 49

Ketesa 2010
bulego eta kolektibitaterako instalazio osoak eta materiala
altzariak, aulkiak, manparak, liburutegiak...
Ke— 2010
bulego materiala enpresetan banatzen dugu
www.ke2010.com
info@ke2010.com

SOUL
estilistak
San Agustin, 3
943 567 232
www.peluqueriasoul.com

## Irribarria txapelduna kaiola barruan Katedralean San Juan egunean

**Aspe pilota enpresak jaialdi bikaina antolatu du Sanjuanetako egun handirako,** partidu nagusian Irribarria buruz-buruko txapeldunaren parte-hartzearekin. Partidu hori ere buruz-burukoa izango da, San Fermin egunean Iruñean jokatuko den Nafarroako lau eta erdiko finalerako bidean prestatutako eskailerari dagokiona. Altuna izango du aurkari txapeldunak. Jaialdia hasteko, Jaka-Zubieta eta Ugalde-Barriola bikoteen arteko lehia iragarri dute, Ugalderen debutarekin profesionaletan. Eta, amaitzeko, Dario-Irusta eta Elordi-Cecilio bikoteek jardungo dute nor baino nor.



*Txapeldunak Altuna izango du aurkari lau eta erdiaren barruan.*

## Xake torneoa uztailaren 2an

**Klub Deportiboko xake batzordeak Eibarko Hiria Jose Maria Kruzetaren omenezko partida azkarren** txapelketa dihardu prestatzen. Aurten ere Euskal Herriko txoko guztietatik etorritako xakelariak bilduko ditu Untzagan arratsaldez eta, horrez gain, Arnasa Gipuzkoako Fibrosi Kistikoaren Elkartearekin batera, "Xake Mate Fibrosi Kistikoari" sentsibilizazio kanpaina antolatuko dute.



Bestalde, Aste Santutik ekainera arte jokatu den Groseko Udaberriko 12. Irekian, Jon Arana eibartarrak seigarren postuan amaitu du. Jose Antonio Garrido 24. izan da eta Julen Garro 37.

## Kirol instalazioen ordutegia jaietan

**Hilaren 23an, 24an eta 25ean ordutegi berezia izango dute Eibarko Kirol Patronatoko instalazioek,** bakarrik goizez zabalduko dira-eta. Horrela, San Juan bezperan Ipurua eta Orbea kiroldegiek goizeko 07:30etik eguerdiko 13:00etara irekiko dituzte ateak, eta Unbe kirolguneak 10:00etatik 13:00etara. Eta San Juan egunean eta San Juan Txikikoan hiru instalazioek ordutegi bera izango dute: 09:00etatik 13:00ak arte.

## Kalamuakoak torneoetan



**Aurreko zapatuan Bansander Sariaren X. edizioa jokatu zen Santanderreko** Bellavista de Cuetoko udal pabilioian. Kalamua lau ordezkarirekin aurkeztu zen maila handiko torneo horretan eta eurendako izan zen talde gazteenentzako saria. Horrez gain, hainbat sari irabazi zituzten: esaterako, Garikoitzek Bansander Saria bereganatu zuen eta Ikerrek ippon azkarrenarena.

Bestalde, orain dela egun batzuk Bilboko San Ignacio kiroldegian jokatutako karateko Euskadiko Kirol Jokoetan, infantil mailako **Xuban Hoyos** 3. postuan sailkatu zen, hau da, brontzezko domina lortu zuen kumite modalitatean. Hoyosek uztailean gerriko beltza ateratzeko txartela irabazi du gainera.






## San Juan sari nagusia domeka goizean

**Junior mailako Euskadiko txapela izango da jokoan** domeka goizean, Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatuta, gure herrian jokatuko den San Juan sari nagusian. Elkarteak 90 urte egiten dituen honetan irabazleak lasterketa eta Euskadiko txapela, biak bereganatuko ditu. Lasterketa 09:30-ean abiatuko da Azitaindik eta, ia 100 kilometro (98,7) osatu ondoren, Armeria Eskolan kokatutako helmugan izango du amaiera. Aurretik, Arrasateraino joko dute txirrindulariek, handik bueltatu eta Debara eta, ondoren, Kalbario eta Azkarate gainak gaindituta, helmugaren bila.

Bestalde, Eibar Energia Hiria taldeko txirrindulariek bihar Seguran eta etzi batzuk Mungian eta besteek Pamplona Bayonan izango dituzte hurrengo erronkak. Aurreko domekan Atauen jokatutako proban Onditz eta Victor Cordon sartu ziren ihesaldietan.



*Helmuga Isasin kokatuko dute, Armeria Eskolaren parean.*

## Eibar Urkok Euskal Kopa irabazi zuen

**Jubeniletako Ohorezko mailako taldea penaltietan nagusitu zitzaion Bilboko Danok Bat taldeari** Euskal Kopako finalean. Eibartarrak aurreratu ziren Unairen gol bati esker, baina handik gutxira berdindu zuten bizkaitarrek. Ondoren, epaileak gorri-urdinen jokalari bat kanporatu zuen; baina, hala ere, eibartarrek ondo eutsi zioten aurkariari luzapenean. Emakumezkoen lehen taldeari, bestalde, txanponaren beste aldea egokitu zaie eta, bana berdindu eta gero, Euskal Koparik gabe geratu dira penaltietan Añorgarekin galdu ondoren.

Hemendik aurrera Eibar Urko izena eramango duena orain arte Urkomendi zena izango da. Eibar FT-rekin lortutako akordioari esker, haren harrobikoa izatera pasatuko da Gorengo Erregionalean jokatzen duen taldea.





## Euskadiko selekzioarekin

**Areto-foballeko Debabarreneko Concepto Egile taldeko hiru jokalari** deitu ditu Euskadiko selekzio absolutoak domeka eguerdian Kataluniako selekzioari aurre egiteko. Azken denboraldian Debabarreneko taldearekin jokatu duten Asier Gil eta Mikel Treviñorekin batera (hurrengo denboraldian ere hemen izango dira), Labastida Mahastiak taldetik etorritako Ramon del Campo "Montxo" fitxatu berria ere izango da.












# EIBAR HORTZ KLINIKA
## CLÍNICA DENTAL

- KALITATEA PREZIORIK ONENEAN, TRATAMENDU GUZTIETAN
- ARRETA PERTSONALIZATUA, HURBILA ETA PROFESIONALA
- HAGINLARI KOLEGIATUAK, 10 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIAREKIN
- ODONTOPEDIATRIA ZERBITZUA, HAURDUNALDITIK | KLINIKAN KONTSULTATU



R.P.S. 259/15
MAITANE G. IÑIGUEZ
ODONTOLOGIAN LIZENTZIATUA

**ZERBITZU GUZTIAK KLINIKAN BERTAN**

- ODONTOLOGIA OROKORRA
- HAUR-ODONTOLOGIA
- HORTZ ZURITZEA ETA ESTETIKA
- ORTODONTZIA
- PROTESI FIJOA ETA KENTZEKOA
- ZIRUGIA ETA INPLANTEAK

**SAN AGUSTIN KALEA, 4 BEHEA EZKERRA, 20600 EIBAR**

TELEFONOA 943 537 076 MUGIKORRA 688 884 808

www.eibarclinicadental.com info@eibarclinicadental.com

## Asteburu betea Atzegikoek

**Atzegi elkartekoek asteburu bete-betea izan zuten: zapatuan Debabarrenako familien topaketa** egin zuten Eibarren eta, bazkaltzera joan aurretik Untzagan taldeak argazkia atera zuen. Eta domekan, berriz, Galdaramiñoko igoeran parte hartu zuten Atzegiko hiru mendi taldeek, azken urteotako martxari jarraituta. Mendi ibilaldia amaituta, gosea kendu eta indarberritzeko, hiru taldeek elkarrekin bapo bazkaldu zuten eta, betiko moduan, ederto ibili ziren. Atzegiko ordezkariek mendizaleen zain prestatutako ibilbideetan gida lanak egin zituzten Ana eta Eduri eskerrak eman nahi dizkiete, "egun osoan zehar eskainitako laguntza eta arretarengatik, mila esker!".


Amaia Jaio


Amaia Jaio

## Poesiari eskainitako gaua

**Zapatu gauean poesia emanaldia egin zuten Ibarkurutzeko iturrian,** Geltoki Elkarteak antolatutako saioan. Maite Lorenzok zuzentzen duen Itzamna poesia tailerreko kideek poesiak errezitatu zituzten eta, horiei laguntzen, zuzeneko musika eskaini zuten Juan Bautista Gisasola abesbatzak eta Javier Triguerok.

## Garagardo Jaia domekara arte

**Martitzen arratsaldean zabaldu zuten Eibar Rugby Taldekoek XI. Garagardo Jaia Untzagan.** Aurten Eibartarrak foball taldea omendu dute, taldearen sorreraren 25. urteurrena bete dela eta. Domekara arte egongo da zabalik karpa, gaur eta bihar 19:00etatik 00:30era eta domekan, berriz, 11:30etik 21:00etara. Azken egun horretan, gainera, menu berriak eskainiko dituzte. Bestela, ohiko eskaintzaz gozatzeko aukera izango da: era guztietako garagardoak eta Alemaniako janaria (saltxitxak, hanburgesak, brotxetak eta ukondoa) egongo dira salgai.


Silbia H.

PINTURAS ARRATE, S.L.
• Nexa Autocolor
• Pintura industriala
• 3M produktuen banatzailea
MATSARIA, 34 behea - A
info@pinturasarrate.com
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

ALTZARIAK • OBJEKTUAK • OSAGARRIAK • MENAJEA
OIHALAK • ARGIZTAPENA • PAPERTEGIA
DIVINA VALENTINA
CHIC & DECO
CONCEPTSTORE
Bidebarrieta, 18 943 05 46 37

ROTULOS JBA
943 20 88 69
Sostoa,3 EIBAR www.rotulosjba.com

Twins
Eibar
bidebarrieta, 8 • tel. 943 05 60 82

## Hilketarengatik akusatutako gizona errudun

**Eibarko baserri batean 2013ko irailaren 22an odolusturik hil zen gizonaren heriotzaren** harira egunotan egin den epaiketan baserriko jabea erruduna dela erabaki du epaimahaiak. Horrekin bateraz, armak legez kanpo edukitzeagatik ere zigortu du. Baserriko jabeari hildakoaren gorpua ezkutatzen lagundu izana egotzita epaitu dituzten beste hiru gizonak, berriz, absolbitu egin dituzte eta aske geratu dira, epaimahaiak parte-hartzea frogatzeko zantzu nahikorik ez dagoela ebatzi du eta. Hala ere, zigorra bertan behera laga eta baserriko jabearentzat indultua eskatzearen alde agertu da. Zigor-eskaera epaimahaiaren erabakiari egokitzeko bilera egin dute fiskalak, akusazio partikularrak (hildakoaren bikotekidea) eta defentsak. Ministerio Publikoak 13 urteko kartzela-zigorra eskatu du hilketagatik eta armak legez kanpo izateagatik, eta akusazio partikularrak zigor bera eskatu du. Baserriko jabearen abokatuak, aldiz, absoluzioa eskatu du, bere burua babestearren hil zuela argudiatuta.





## Merkadillo biak tokiz aldatu dituzte

**San Juan jaiak direla eta, aurten umeen barrakak Urkizuko parkean** ipiniko dituztenez, eguazteneko merkadilloa tokiz aldatu dute, Bittor Sarasketa kaleko aparkalekura, jaiak pasatu eta parkea libre geratu arte. Eta Txaltxa Zelaiko postuak ere tokiz aldatu dituzte jaiak direla eta: San Juan jaiak amaitu arte Toribio Etxebarrian izango da azoka.

## Donostitik Eibarrera bisitan

**Euskal Herriko Unibertsitateko Humanitate ikasle ohien talde bat Donostitik gurera** bisitan etorri zen eguaztenean, Eibarko tokirik esanguratsuenak ezagutzeko asmoz. Esperientzia Ikasgeletako 20 lagunen artean hiru eibartar izan zituzten gidari: San Andres elizan ekin zioten egunari. Handik udaletxera joan ziren, alkateak harrera egiteko eta, jarraian, Arratera igo ziren, hango eliza ikusi eta gero Ixuan bazkaltzeko. Arratsaldean, berriz, Armagintzaren Museoa ikusten ibili ziren, horrela egunerako plana biribilduta.



Silbia H.




## Errefuxiatuen alde

**Astelehenean, ekainaren 20an "Beste Europa bat posible da!"** goiburuari jarraituta elkarretaratzea egingo da Untzagan, 19:30ean, CARE errefuxiatuei laguntzeko Eibarko taldekoek Errefuxiatuen Nazioarteko Egunaren harira deituta.





Zure plana Talent da. Garapen profesionaleko plana

Garapen profesionaleko plana enpresa arrakastatsu batean: **Nationale-Nederlanden**, bertan aukeraz betetako etorkizuna izan dezakezu. **Interesatuta bazaude, bidali zure curriculuma honako helbidera: aatrio@nnseguros.com**

nationale nederlanden

Zu garrantzitsua zara

## Eskola Jasangarria izendapena berretsiz

**Mogel Isasi ikastetxeak Eskola Jasangarria izendapena berretsi du, Eusko Jaurlaritzaren ebaluazioa** bikain batekin gainditu eta gero. Horrela, 2003-2004 ikasturtean eskuratu zuten ziurtagiria berrituta aitortu diete ikastetxean ingurumena zaintzearen alde eta energiaren kontsumo erangikorra lortzeko ikasle eta irakasleek egindako beharra. Mogel Isasi ikastetxeak urteak daramatza ikasleak jasangarritasunaren inguruan prestatzen, Debegesa eta Ingurugelaren laguntzarekin, Eskolako Agenda 21 egitasmoaren baitan. Landu dituzten gaien artean, hondakinak, ura, Deba ibaia, energia, klima aldaketa, kontsumo jasangarria eta mugikortasuna daude, besteak beste. Teoria ikastetik haratago, horrelako gaien inguruan ikasleek daukaten inplikazioa nabarmendu dute ikastetxeko arduradunek.




## Gure Balioak Sarirako hautagaitzak

**Debegesa garapen agentziak sustatu eta antolatzen duen Gure Balioak Sarirako hautagaiak** aurkezteko epea zabalik dago (ekainaren 30era arte). Debabarrenean gizarte balioen arloan egindako lanagatik nabarmendu den pertsona edo entitateen jarduna publikoki aitortzeko asmoa duen sariak aurten zazpigarren edizioa beteko du eta edozeinek izango du bere hautagaiak aurkezteko aukera. Hala ere, hautagaiak eskualdearekin loturaren bat izan beharko duela kontua izatea komeni da. Sariaren gaineko xehetasun guztiak, oinarriak eta hautagaitzak aurkezteko bete beharreko inprimakia debegesa.eus webgunean eskura daitezke.






## Maskota lehiaketa uztailean

**El Corte Inglesak VI. Maskota Lehiaketa antolatu du txakur, katu eta bestelako maskotentzat.** Uztailaren 2an, 11:30ean hasiko da lehiaketa, baina parte-hartzaileak 15 minutu lehenago egon beharko dira. Izen-ematea doakoa da eta izena ematerakoan zein kategoriatan parte hartu nahi den adierazi beharko da (El Corte Ingleseko Maskota sailean eman daiteke izena, ekainaren 25era arte). Kategoria bakoitzeko irabazleek garaikurra eta sari berezia izango dute maskotarentzat. Bestalde, zapatu arratsalderako umeendako jarduera bat antolatu dute: 18:00etan "Txotxongilo dibertigarriak" izenekoa eskainiko dute terrazan (euria eginez gero, ekitaldi aretoan), parte hartu nahi duten ume guztientzat.

ELECTRO AGUIRRE
ELECTRO AGVIRRE, C.B.
Errebal, 14 943 20 19 10
electroaguirre@euskalnet.net

GROW SHOP
Grow 13 14 Eibar
Lanparak
Balantzak
Haziak
Pipak
Grinder
Txaltxa Zelai, 2-A
Tel. 943-531909

+QWAPOS
txakur ileapaindegia
Bista Eder, 7
943 12 08 72
– Ohizko mozketak, baita erakusketetarako ere
– Trimmming, Stripping
– Bainu mota guztiak
– Hidratanteak, indartzaileak eta parasitoen aurkakoak
– Produktu eta osagarrien salmenta

FISIOTERAPIA GUEREÑU
Fisioterapeuta
18 zenbakiko
Kolegiatua
EIBARKO TXIKITO, 12
BEHEA ESKUMA
TELEFONOA:
943 12 14 80

# Ondo pasa Sanjuanetan!!


tabernaalbertotaberna

**taberna alberto**

OGITARTEKOAK
SANDWICH-AK
HANBURGESAK
PINTXOAK
TXANPIAK

Juan Gisasola, 10 Tel. 692 32 14 79

GURIDI RUGBY

EIBAR RUGBY TALDEA

GORA SANJUANAK!!!

Ahara

Untzaga Plaza, Eibar
943 043 782

Bista Eder, 10

**Portalea Jatetxea**

"Eguneko Menua"
Afariak asteburuetan
(egunero enkarguz)
Pintxoak
Ogitartekoak



943 20 68 68

IGANDEETAN ITXITA

GORA Sanjuanak!!

Gosariak
Bokatak
Trinkete
EIBAR 1957
Pintxoak
Tragoak

*Ospatu gurekin!!*



Errebal, 24
943 70 13 23

O'JAYS IRISH TAVERN

**Ondo pasa San Juan jaietan!!!**

*eta ondo baino hobeto gurekin*
*Untzaga, 8an*

**ESKARNE**
JATETXEA

• *eguerdiko menua*
• *menu bereziak*

Arragueta 4 Tel. 943 12 16 50 20600 **EIBAR**




ETXEZ-ETXEKO ZERBITZU BERRIA

FOXTER-ek bere gastronomia bikaina etxera eramaten dizu, igande-ostegun bitartean, 20:00etatik 22:30era.

Animatu zaitez eta deitu!!!

razioak • sandwichak • hanburgesak • bokatak • mexikarrak

Plaza Barria, 6. Tel. 943 121 255

BUENOS AIRES

Toribio Etxebarria, 8




EIBARKO KLUB DEPORTIBOA

WiFi GUNEA

✔ BAZKARI ETA AFARIAK
✔ PLATER KONBINATUAK
✔ BOKATAK
✔ RAZIOAK
✔ ETXEKO POSTREAK
✔ MENU BEREZIAK ENKARGUZ

943 20 70 44

SUKALDEKO ORDUTEGIA: Ostegun eta Ostiralak 20:00-00:00
Larunbat eta Igandeak 12:00-16:00 20:00-00:00

Ostegunero Pintxo-Potea

## Ustekabe Zumaiako danborradarekin Sevillara

**Ustekabe fanfarrea Sevillara joango da asteburuan, han jokatuko den Euskadi Basque Country** traineruen banderaren harira antolatu duten danborradan jotzera. Zumaiako Telmo Deun arraun-taldea domekan Guadalquivirreko uretan jokatuko den Euskadi Basque Country txapelketan lehiatuko da eta, euren trainerua animatzeko, San Telmo danborrada Andaluziaraino eramatea pentsatu dute zumaiarrek, Ustekabe fanfarrearekin batera joko dituzten danbor hotsez arraunlariei animoak emateko. Ekitaldian kamiseta gorria jantziko dute eibartarrek eta, San Telmo danborradako kideekin batera, honako abestiak joko dituzte: "Gora Zumaia!" (Txomin Mujika), "Telmo Deun berria" (Mikel Emezabal), "Kalez Kale" (Iker Gonzalez), "Sasikoipatsu" (J.M. de Udakiola) eta "Debako martxa" (Pablo Sorozabal).






## Arraguetako etxea eraisteko beharrak

**Aurreko astean aurreratu zutenari jarraituta, martxoan Arragueta kalean erre** zen etxea behera botatzeko beharrak hasi dituzte aste honetan. Etxea erre eta egun gutxira, kalteak oso handiak zirela ikustean onena eraistea izango zela erabaki arren, uste baino gehiago luzatu da horretarako lanen hasiera, baina aurreko astean etxetik behera harriak jausi zirela ikusita, badaezpada lehenbailehen ekin diete beharrei.

## Sexismoa musikan aztergai

**Bihar goizean, 11:00etatik 13:00era "Matxismotik harago badago bizitza musikan" hitzaldia** egingo da Andretxean (Zezenbide, 9 behea), Furia Rapera Feministaren eskutik.
Edonorentzat irekia eta dohainik egingo den hitzaldian, *"musikan letra sexisten erabilera zalantzan jarriko da eta, horrekin batera, letra feministen sorreraz berba egiteko tartea"* hartuko dutela aurreratu dute antolatzaileek.



---



# EMILIANO DE PEROSANZ DEL RINCON (2016-VI-7)

Aita eta aitite handia izan zinen, ahal zenuena eman zenigun eta hori asko izan zen guretako.
ESKERRIK ASKO, EMI!

ETXEKOAK



# JUSTO MARRODANen

**1. urteurrena** *(2015-VI-25)*

*Etxekoek maitasunez gogoratzen zaituzte.*
*Zure falta sentitzen dugu.*

## Bi irteera berri Geoparkean

**Euskal Kostaldeko Geoparkeak uda honetarako prestatu duen Bisita Gidatuen Programa berria** aurkeztu zuten barixakuan Debako Santa Maria elizan Geoparkea osatzen duten hiru udalerrietako alkateek, Pedro Bengoetxeak (Deba), Jose Angel Lizardik (Mutriku) eta Oier Kortak (Zumaiak), Leire Barriuso Geoparkeko gerentearekin eta Esti Irureta Zumaiako turismo teknikariak. Datozen hilabeteetarako 500 jardueratik gora programatu dituzte eta, orain arteko eskaintza indartzeko asmoz, uda honetan irteera gidatu berri bi jarri dira abian: umeei eta familiei zuzenduta dagoen "Lasturko plaza" izenekoa eta "Geoparkeko herriak" delakoa. Proposamen berriekin batera, ohiko ibilbide turistikoak eskainiko dituzte: itsasontzian egiteko irteerak, ibilbide geologikoak eta kulturalak, barnealdeko bailarak ezagutzeko jarduerak… Eskaintza osoa kontsultatzeko eta erreserbak internet bidez egiteko geoparkea.com webgunera sartu daiteke edo, bestela, Mutriku, Deba eta Zumaiako turismo bulegoetara joateko aukera ere badago.



## Agur Urkiko jaiei

**Ederto ibili ziren aurreko asteburuan Urki aldean, auzoko jaiak ospatzeko** antolatutako egitarauari esker. Eguraldia lagun, aurreikusitako programari jarraitzeko arazorik ez zuten izan eta txiki zein handiek giro ederrean eman zuten asteburu osoa.



Amaia Jaio

## ONCE-ren 100.000 euroko saria

Aurreko asteburuan, domekako zozketan, ONCE-ren kupoiak Eibarren 100.000 euroko saria banatu duela eman zuten aditzera astelehenean zozketaz arduratzen den erakundeko ordezkariek: ekainaren 12ko zozketan 20.000 eurorekin saritutako 5 kupoiak Ipuruako Maxi Eroskiko postuan saldu ziren eta, saltzaileak esandakoaren arabera, Portalea tabernako bezeroek erosi zituzten.

## Kulturaleko lokala itxiko da udan

Uda aprobetxatuko dute Arrate Kultur Elkarteko lokaletan hainbat konponketa egiteko eta, beraz, beharrak egin ahal izateko, ekainaren 20tik aurrera eta abuztura bitartean ezin izango dira elkartearen lokalak erabili. Hori dela eta, eragozpenak barkatzeko eskatu dute Arrate Kultur Elkarteko ordezkariek.

## Kezka Dantza Talderako matrikula

Kezka Dantza Taldean euskal dantzak ikasteko 2016-2017 ikasturteko matrikulatze epea ekainaren 20an zabalduko da. Portaleko 3. solairuan eman ahal izango dute izena ikasle berriek, datorren astelehenean, 19.00tatik 20:00tara. Izena emateko 6 urtetik gora izatea eskatzen dute.

Izadi
LORADENDA
– Lora eta landare natural eta lehorrak
– Ezkontzetarako lorak
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29


VALENCIAGA
Ospakizun guztietarako behar duzuna
Bidebarrieta, 12 943-202233

San Juan Zoriontsuak!


Bidebarrieta, 24 943 576 941

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

Buruketak ebazten uda txokoa 1 eta 2
BURUKETAK ZELAN EBAZTU METODOA IKASTEKO
XVIII. Psikologia eta Hezkuntza Nazioarteko Kongresuan aurkeztutako metodologia
Norentzat: aurten LH2, LH3 eta LH4 egin dutenentzat
Ordutegia: 11:00 / 12:30
Noiz: Mate 1 uztailaren 4tik 15era eta Mate 2 18tik 29ra
Kopuru mugatua!!!
Miriam y Amaia Psicopedagogía
jugarsentiryaprender.com
info@jugarsentiryaprender.com / 943 53 04 86

# San Juanetatik San Pedroetara zuzen-zuzenean

Aurten San Juan jaiak agurtu bezain laster hasiko gara San Pedro jaiak ospatzen, tartean atseden hartzeko egun bakarra hartu barik. **Ekainaren 27an**, astelehenean hasiko dira Karmen kaleko parkean Beheko Tokia jubilatuen etxekoek antolatutako jarduerak: arratsaldeko 16:30ean umeendako txokolate-jana prestatu dute eta, jarraian, jokoak (lapikoak apurtzen, zaku-lasterketa…) eta **Gorriti** eta bere animaliak ailegatuko dira.

**Hurrengo egunean** eguerditik aurrera hasiko dira ospakizunekin, **toka eta igel-toka** txapelketarekin. Baina ekitaldi gehienak arratsaldez izango dira: 18:00etan **"Nathali y sus boleros"** musika emanaldia hasiko da eta, jarraian, Esperientzia Eskolako azken promozioaren eskutik sortu duten **Emaedamba** taldeak batukada eskainiko du estreinekoz. Ondoren **Kaleetan Kantuz** taldearen txanda izango da eta, eguna agurtzeko, dantzaldia egingo da **Tukan** taldearekin.



Gorritiren animaliak ez dira faltako Karmen kalean izaten duten urteroko hitzorduan.

**Eta hilaren 29an**, San Pedro egunean, urteroko moduan San Pedro meza eta konjurua egingo dira Akondia baserrian, 11:00etan. Eta 12:00etan, berriz, Karmengo Amaren elizan meza egingo da, **Eibarko Koru Gaztia**rekin. Toka eta igel-toka txapelketako irabazleei sariak banatuta agurtuko dituzte jaiak, datorren urtera arte.

FLORA ARANBERRI LASKURAIN

**2. urteurrena**: 2014-VI-21
*"Zure irribarria ta maittasuna beti dagoz gurekin"*
ETXEKUAK






CORO ZUBICARAY AGUIRREGABIRIA
**2. urteurrena (2014-VI-23)**
*Haren alarguna: Calixto Ulacia Beristain*
*"Beti egongo zara gure bihotzetan"*
SENARRA ETA ALABAK




2016-VI-11

# J.A. Mogel Ikastolako
# **Olinpiada Txikia**

# Amañako jaiak inoiz baino lehen

Uztailean izango dira, betiko moduan, baina hilaren 1ean bertan abiatuko dira, urtero lez arratsaldeko 19:00etan botako duten txupinazoarekin. Oraingoan Irene Gomez umeen danborradako zuzendariak izango du jaurtitzeko ohorea, danborradak 25 urte betetzen dituela aprobetxatuz. Ekitaldian bi konpainiek pieza batzuk joko dituzte. Egun berean, gauez, urteroko musika kontzertu itzelaren une berezia izango dugu, 23:30etik aurrera, oraingoan The Vartools eta EH Sukarra Eibarko taldeekin eta Erasoko zarauztarrekin. **Zapatuan**, hilaren 2an, herri-bazkaria izango da goizeko protagonista nagusia. Arratsaldean herri-kirolen tarteak aizkolari eta harrijasotzaile onenetakoen lehiak eskainiko ditu: Arria V.ak eta Mugertza II.ak jardungo dute enborrak mozten eta Izeta II.ak eta Telleriak harria altxatzen. Acordes Navarros-ekoek Nafarroako jotak eskainiko dituzte eta Oasis orkestrak gaua beteko du, bi zatitan banatuko duten emanaldian. Bi zati horien artean izango dira helduen danborrada eta su artifizialak: iazko udan Pirotecnia Zaragozanan izan zuten istripua dela-eta, Amañako Jai Batzordeak omendu egingo ditu.

**UZTAILAK 1 /** 19:00 Txupinazoa, Umeen Danborradakoen eskutik. **19:15** Kalejira, Irulitxarekin. **19:45** Umeendako jokoak, Gorritirekin. **20:30** Kalejira, Sakaturekin. **21:15** Entzierro txikia. **23:30** Musika kontzertua, The Vartools, EH Sukarra eta Eraso taldeekin.

**UZTAILAK 2 /** 11:30 Maskoten lehiaketa. **12:00** Aire Libreko pintura lehiaketa. **14:30** Herri-bazkaria: paella. **16:30** Umeendako parkea. **18:30** Herri-kirolak, Arria V.a eta Mugertza II.a aizkolariak Izeta II.a eta Telleria harrijasotzaileekin. **19:00** Pintxo-potea. **19:00** Txokolate-jana. **20:00** Nafarroako jotak, Acordes Navarros-ekin. **20:00** Kalejira, Electro-Txuflarekin. **23:00** Berbena, Oasis orkestrarekin. **23:15** Helduen danborrada, Irulitxarekin. **00:00** Su artifizialak, Pirotecnia Zaragozanaren eskutik. **00:45** Berbena, Oasis orkestrarekin.

**UZTAILAK 3 /** 11:00 Hildakoen aldeko meza. **12:00** Salda eta txorizoa. **12:15** Umeen danborrada, Irulitxarekin. **13:30** "Amaña es la Caña"ren familia-argazkia. **14:30** Ogitartekoak eta freskagarriak. **18:30** Pailazoak, Pirritx, Porrotx eta Mari Motots-ekin. **19:30** Txokolate-jana. **19:30** Txorizo-jana eta poteoa. **20:00** 70. hamarkadako abestiak, DJ Angel-ekin.

**UZTAILAK 8 /** 14:15 Jubilatuendako bazkaria. **21:30** Bertso-afaria. **UZTAILAK 10 /** 11:00 Meza, Goruntzekin.



Eraso Zarauzko taldea izango da, The Vartools eta EH Sukarra eibartarrekin batera, barixakuko kontzertuan Amañako plazan.

**Domekan**, uztailaren 3an, umeen danborrada egingo da eguerdian eta, arratsaldez, urtero moduan, Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoek euren onena emango dute DJ Angelek 60. eta 70 hamarkadetako musika eskaini aurretik. Ahaztu barik txorizo-janarekin egingo den poteoak eta txokolate-janak eskainiko duten sabela betetzeko aukera.

Amañan badago zer ospatu **bigarren asteburuan** ere: barixakuan, hilaren 8an, auzoko jubilatuendako bazkaria izango da Unzaga Plaza hotelean eta bertso-afaria, berriz, Ipur sagardotegian. Maialen Lujanbio eta Beñat Gaztelumendi handiak izango dira hor eta ticketak salgai daude Ipur-en bertan, Deporren eta Amesti tabernan. Domekan, uztailaren 10ean, Goruntz abesbatzak girotuko duen meza izango da Amañako parrokian.

Gaur bertan egingo dute jaietako aurkezpena, ohikoa denez, Amañako Laboral Kutxako bulegoan. Ekitaldia 13:30ean hasiko da eta oraingoan Arrate Bergaretxek eta Javier Mandiola "Manix"-ek ondo merezitako omenaldia jasoko dute, lunch-ari ekin aurretik.



Umeen danborradak mende laurdena beteko du aurten.

www.etakitto.eus
ALBISTEAK KULTUR-AGENDA
KIROL-AGENDA BERBETAN

# gremioen gida

943-206776

## ANTENAK

**BALATZ C.B.**
instalakuntzak eta konponketak
antenak - telebista
Bidebarrieta, 37 — Tfnoa. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net — Faxa. 943 20 04 94

**Antena instalazioak**
TDT / Satelitea
**Informatika Zerbitzua**
Sareak /Antibirusa
Sistema Operatiboa
**Miguel Angel Garcia**
Mugikorra: 609 250 858
garciagmiguel@movistar.es

**trinmer**
Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com
TELEKOMUNIKAZIOAN PROFESIONALAK

## AROTZAK

*Iparragirre Anaiak*
SUKALDE ALTZARIAK
AROZTEGIA
– APALATEGI Auzoa –
Tel.: 943 20 29 27 / 943 12 01 92 — Mobila: 657 79 56 78

**ulmar S.L.**
metalezko eraikuntzak
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50
ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## ELEKTRIZITATEA

**egoluz**
ELEKTRIZITATEA S.L.
Ego Gain, 9 ac
ego.luz@hotmail.com
677 51 24 62
630 95 73 45
943 20 06 97

**electricidad iparelek s.l.**
943 530 356
688 674 242
669 934 964
INSTALAZIOAK ETA MANTENIMENDUA
iparelek@gmail.com — iparelek@iparelek.com

**THELECER**
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko urgentziak
610 532 922

## ERAIKINEN MANTENUA

**I.T.E.** Inspeccion Tecnica de Edificios
**E.I.T.** Eraikinen Ikuskapen Teknikoa
info@ajtoficina.com tlf. 943 20 12 50
AJT zihurtasuna s.l.p.
Barrena, 6 - behea ezk.

## ERREFORMAK

**AINARAVESGA ARKITEKTURAK**
Urkizu pasealekua 7 behea
Tfnoa: 639 028 256
ainaravesga@hotmail.com
www.vesgaarkitekturak.com

**ESTUDIOS ARRILLAGA**
PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK
Rosario, 15 -Elgoibar-
605 713 168 — 943 744 019

## GARBIKETAK

**Limpieza Multiservicio Eibar**
Superfizie mota guztietako **garbiketa** eta **mantenimendu** zerbitzua
Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioseibar.com — Barrena, 21-1.F

**TREJO GARBIKETAK S.L.**
Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze
Garbiketa eta mantenimendua

## IGELTSEROAK

**irazabal**
Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
Jose Maria Irazabal, S.L.
Zure etxea, bulegoa, tailerra... aldatzen laguntzen dizugu etorkizun hobeaz goza dezazun
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

## KRISTALAK

**ACHA Kristaldegia**
TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com
eta faxa: 943 203 903
ERAKUSKETA
Arikitxaneko Zubian

## PINTURAK

**baglietto**
PINTOREAK
Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa
Errebal, 21
Tel/Fax: 943 201 922 — bagliettoeibar@kaixo.com

**MALVAR PINTURAS**
Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

**VICTOR GONZALEZ FRAIZ**
PINTURA OROKORREAN
BARNE eta KANPOko dekorazioa eta pintura, FATXADAK, PINTURA BEREZIAK, ENPAPELATUAK, GOTELÉ...
Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

## telefono jakingarriak

**SOS deiak**.................................*112*
**Pegora**......................................*010*
**Udaletxea**..................*943 70 84 00*
**Portalea**.....................*943 70 84 39*
**Udaltzaingoa**.............*943 20 15 25*
**Mankomunitatea**.......*943 70 07 99*
**Debegesa**..................*943 82 01 10*
**KIUB**..........................*943 20 38 43*
**Epaitegia**...................*943 03 34 00*
**Iberdrola**....................*901 20 20 20*
**Naturgas**....................*902 12 34 56*
**DYA Larrialdiak**.........*943 46 46 22*
**Gurutze Gorria**..........*943 22 22 22*
**Mendaro osp.**............*943 03 28 00*
**Anbulategia**...............*943 03 25 00*
**Torrekua**....................*943 03 26 50*
**Errepideak**.................*902 11 20 88*
**Ertzaintza**..................*943 53 17 00*
**Eusko Tren**................*902 54 32 10*
**Pesa**...........................*902 10 12 10*
**Taxiak**........................*943 20 30 71*
...................................*943 20 13 25*
**Alkohol.Anon.**............*629 14 18 74*
**Al-Anon/Alateen**.........*650 26 59 63*

SORBAK

## Azitainen sorbak bedeinkatzeko meza

Datorren asteko barixakuan (24an), San Juan herriko patroiaren jaia ospatzeko, Azitaingo elizan urtero lez meza egingo da 11.00etan eta, ohiturari jarraituta, nahi duenak San Juan sorbak bedeinkatzeko aukera izango du. Azitaingo Andre Mariaren Jasokunde parrokian sorbak bedeinkatzeko ohitura oso aspalditik dator eta, parrokiako juntakoek azaldu digutenez, *"bedeinkatutako sorbak urte osoan baserrietako ateen gainean zein etxe-barruko lehentasunezko tokiren batean ipintzen dira, hurrengo urtean San Juan suan erretzeko"*. Sasoi batean sorbek izpiritu txarrak uxatzeko, baserri zein abereak tximistetatik babesteko eta uztak euri eta txingorrak ez kaltetzeko balio zutela uste zuten askok eta, hori gogoan, Azitaingo parrokiakoek Eibarko baserritarrak eta herritarrak orohar sorbak bedeinkatzeko mezan parte hartzera animatu nahi dituzte, ohiturari eusteko.

# hildakoak

- **Berta Sanchez Sanchez.** 97 urte. 2016-V-22.
- **Emiliano Perosanz Rincon.** 85 urte. 2016-VI-7.
- **Francisca San Pedro Estivez.** 91 urte. 2016-VI-11.
- **Carmen Toledo Santiago.** 82 urte. 2016-VI-12.
- **Arrate Iñan Lapeña.** 65 urte. 2016-VI-12.

# jaiotakoak

- **Unai Hernaltes Malvar.** 2016-VI-2.
- **Enara Maiztegi Estrada.** 2016-VI-10.

## SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 7 | | | | 2 |
| | 5 | 3 | | | | 4 | | |
| | | | 6 | 9 | | | 3 | |
| | | 5 | | | 1 | | | |
| 1 | 6 | | | | | | 2 | 8 |
| | | | 9 | | | 1 | | |
| | 7 | | | 2 | 6 | | | |
| | | 9 | | | | 5 | 6 | |
| 6 | | | | 1 | | | | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 9 | 3 | 7 | 1 | 5 | 8 | 2 | 6 | 4 |
| 2 | 5 | 8 | 6 | 7 | 4 | 3 | 1 | 9 |
| 4 | 1 | 6 | 2 | 3 | 9 | 7 | 5 | 8 |
| 1 | 7 | 4 | 8 | 6 | 5 | 9 | 2 | 3 |
| 6 | 8 | 2 | 3 | 9 | 7 | 5 | 4 | 1 |
| 3 | 9 | 5 | 4 | 2 | 1 | 6 | 8 | 7 |
| 5 | 4 | 3 | 7 | 8 | 6 | 1 | 9 | 2 |
| 8 | 2 | 9 | 5 | 1 | 3 | 4 | 7 | 6 |
| 7 | 6 | 1 | 9 | 4 | 2 | 8 | 3 | 5 |

AURREKOAREN EMAITZA

# farmaziak

Barixakua 17
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
Zapatua 18
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Domeka 19
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
Astelehena 20
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
Martitzena 21
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Eguaztena 22
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
Eguena 23
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
Barixakua 24
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
Zapatua 25
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
Domeka 26
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
Astelehena 27
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
Martitzena 28
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
Eguaztena 29
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
Eguena 30
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

UZTAILA
Barixakua 1
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
Zapatua 2
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Domeka 3
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
Astelehena 4
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
Martitzena 5
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
Eguaztena 6
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
Eguena 7
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
Barixakua 8
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)

GAUEZ BETI -2016AN-
**Iraundegi** (Calbeton, 19)

# eguraldia (EUSKALMET.NET)



**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**

laztanak emoten...
943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus



Zorionak, AIORA, haraiñegun urtetxua egin zenduan-eta! Musu bat famelixa guztiaren eta, batez be, Malenen partez!



Zorionak, ALAINE, hillaren 21ian 8 urte egingo dozuz-eta. Jarraittu hain berezixa izaten. Famelixaren partez.



Zorionak, FRANCISCA, atzo 99 urte bete zenduazen-eta. Musu haundi bat zure seme-alaben, billoben eta birbilloben partez.



Zorionak, IRENÍI, bixar bi urte egingo dozuz-eta. Aittak eta amak asko maitte zaittue! Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ANGEL, hillaren 20xan sei urte egingo dozuz-eta. Famelixaren eta, batez be, aittitta-amamaren partez.



Zorionak, LORE Velazquez Casado, hillaren 26xan urtetxua egingo dozu-eta. Deba eta Eibarko famelixaren partez.



Zorionak, JULIA, etxeko printzesak gaur sei urte betetzen dittu-eta! Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Maiteren partez.



Zorionak, MAULE, domekan sei urte eder beteko dozuz-eta. Laztan potoluena famelixakuen eta Izaroren partez.



Zorionak, MALEN, hillaren 22xan 5 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Iratiren partez.



Zorionak, LIHER, astelehenian sei urte egingo dozuz-eta. Jarraittu oiñ arte bezala, inguruak alaitzen.



Zorionak, ANNE, hillaren 22xan bi urtetxo egingo dozuz-eta. Ondo pasa eguna, aitxitxa-amamaren partez.



Zorionak, MELANY, haraiñegun sei urte egin zenduazen-eta. Musu haundi bat amaren partez.



Zorionak, ALAITZ, hillaren 23an 9 urte beteko dozuzelako. Patxo potolua famelixaren partetik.



Zorionak, IRAIA, hillaren 25ian sei urte beteko dozuz-eta. Musu asko etxeko guztion partez.



Zorionak, NORA eta HIART. Patxo potolo bat gure printzesendako etxekuen partez!!



Zorionak, DANEL eta MIKEL, zuen laugarren eta seigarren urtebetzietan. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JESUSA eta TIMOTEO, bixar zuen 50. ezkontza-urteurrena dalako. Merezi daben moduan ospatuko dogu. Laztan haundi bat etxekuen partez.

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**
**18an:** 19:45, 22:30
**19an:** 20:00
**20an:** 20:30

**"Mayo de 1940"**
*Zuzendaria:* Christian Carlon




**(2 ARETOAN)**
**18an:** 17:00, 19:45, 22:30
**19an:** 17:00, 20:00
**20an:** 20:30

**"Grandes familias"**
*Zuzendaria:* J.P. Rappeneau




**(ANTZOKIAN)**
**18an:** 17:00(1), 19:45, 22:30
**19an:** 17:00(1), 20:00
**20an:** 20:30

**"Ninja Turbes"**
*Zuzendaria:* Dave Green




**(ANTZOKIAN)**
**18an:** 17:00(gazteleraz / 4€)
**19an:** 17:00(euskeraz / 4€)

**"Albert"**
*Zuzendaria:* Karsten Kiderick



# iragarkilaburrak


**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan

**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak



943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus


Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Bastidan etxea salgai. 3 logela, jangela, sukaldea, 2 komun eta despentsa. Berriztuta. Eguzkitsua eta dena kanpora begira. Aukera ona. Tel. 617-323246. Itziar.

### 1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren, 450/500 euro bitartean. Tel. 632-569245.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-330218.
– Pisua hartuko nuke alokairuan. Lan-kontratua dut. Tel. 666-060799 eta 666-988946. Naiara.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Lokala salgai edo alokagai jubilazioagatik. Estetika zentro moduan prest. Tel. 665-344815 eta 943-702854.

### 3.2. Errentan

– Garaje itxia alokagai Eibar erdialdean (Txomo eta Abontza artean). Tel. 617-688311.
– Lokala alokagai Ubitxa inguruan, kalerako irteera zuzenarekin. Bulego, biltegi edo tailer txikiarendako aproposa. 70m²/150m². Tel. 617-688311.
– Garajea alokagai Estaziño 13an. Marraduna eta zabalera handikoa. Tel. 943-203741.
– Martxan dagoen ileapaindegia alokagai Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 628-738472.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 655-677035.
– Emakumea eskaintzen da asteburuetan eta gauez nagusiak zaintzeko. Tel. 638-544358.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 722-396233.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 605-811267.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-245326.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 681-065683.
– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko etab. Tel. 692-345215.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 602-810654.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketak egiteko. Tel. 612-200806.
– Neska eskaintzen da interna moduan lan egiteko. Tel. 637-191397.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 634-215907.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Erreferentziak. Tel. 658-212373.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 626-444649.
– Neska euskalduna eskaintzen da uztailean umeak zaintzeko. Tel. 634-538965. Ione.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta kamarera moduan. Orduka. Tel. 631-531323.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko 15:00etatik aurrera. Baita asteburuetan ere egun guztian. Tel. 637-304817.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 626-197217.
– Neska nikaraguarra eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna. Tel. 637-191397.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 638-515953.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka eta asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 679-910991.
– Emakumea eskaintzen da 09:00etatik 17:00etara lan egiteko. Tel. 634-446252.
– Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Ordutegi zabala. Tel. 688-718002.
– Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko eta pegorak edo soziedadeak garbitzeko. Esperientzia. Tel. 638-421827.
– Neska euskalduna eskaintzen da ekainean eta uztailean umeak zaintzeko. Ingelesa ere badaki. Tel. 680-923291.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 631-417922.
– Mutila eskaintzen da etxez-etxe erropa garbitu eta lehortzeko (edredoiak, izarak, gortinak, mahai-zapiak), oinetakoei distira eman eta erosketak eta enkarguak egiteko. Tel. 632-559812.
– Neska euskalduna eskaintzen da pegorak eta soziedadeak garbitzeko. Tel. 617-571210.
– Neska eskaintzen da pertsonak zaintzeko, baita gauez ere. Esperientzia. Tel. 616-281931.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 634-709827.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Esperientzia. Tel. 616-457254.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 637-191397. Aida Patricia.

### 4.2. Langile bila

– Ileapaintzailea behar da Elgoibarko San Lazaro egoitzan. Tel. 943-740296. Monika edo Itziar.
– Eibarko Kids & Us-en ingelesezko irakaslea behar da: ingeles goi mailarekin, dinamikoa, alaia eta haurrekin lan egitea atsegin duena. Bidali curriculum-a: direccion.eibar@kidsandus.es
– Neska euskalduna behar da uztailean umea zaindu eta etxeko lanetarako. Erreferentziak eskatuko dira. Tel. 676-105492.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Alfonbra (zabalera: 1'99 eta luzera: 2'93) eta josteko makina (Alfamatic 109 modeloa) salgai. Ia berriak. Tel. 943-702167.

### 6.4. Bestelakoak

– Alfonbra (zabalera: 1'99 eta luzera: 2'93) eta josteko makina (Alfamatic 109 modeloa) salgai. Ia berriak. Tel. 943-702167.


CAPI
www.capiestetica.es
Zaintzen Zaitugu
Bidebarrieta, 5
Tel. 943 201 547
ESTETIKA ZENTROA ETA LURRINDEGIA
JARRAITUIGUZU: facebook.com/capiestetica
AURPEGI TRATAMENDUAK
LEHEN
GERO
- Betile luzapenak
- Betileetarako liftinga
- Iraupen luzeko rimel-a
- Ia betirako manikura
- Gel atzazkalak
Lifting japoniarra
Radiofrekuentzia
Mantxak
Mesoterapia birtuala
Ipini zaitez sasoian
astero bakarrik
20 minutu eginez
Powered by BODY
5 saioko BONOA
10 saioko BONOA
Berria!
Gorputz tratamenduak
5 saiorako BONOA
LEHEN
ORAIN
LEHEN
ORAIN
BESOAK
lehen
orain
ESTRIAK
lehen
orain
LASER DEPILAZIOA
30€ zona bakoitza
Hanka osoak + Izterrondoak: 90€
MASAJEAK
Kabitazioa / Laser lipolitikoa /
Presoterapia / Mesoterapia / ...


Eibarbus
Bulegoa: 943 20 17 33
Mobila: 650 71 03 36
Mobila: 629 48 15 92
eibarbus@eibarbus.com
www.eibarbus.com
Isasi 20 - behea
20600 EIBAR
❒ Bertoko eta nazioarteko BIDAIAK
❒ Enpresa eta eskola GARRAIOAK
❒ TXANGOAK
Eibarbus
autobusak

bista eder
clinica dental - hortz klinika

# Asko dira
## gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak

*San Juan zoriontsuak!*



innovadental clinicas

**20.000tik GORA PAZIENTE** ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun

www.**innovadentalclinicas**.com

RPS: 53/13

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN

bista eder
clinica dental - hortz klinika

Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN

innovadental [ Azpeitia clínica dental - hortz klinika ]

José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**